



ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

GRADU AMAIERAKO LANA

**SARE SOZIALETAN GURASOEK
ADINGABEEKIKO EGITEN DUTEN
ESPOSIZIOAREN AURREAN,
ADINGABEEN INTIMITATE, OHORE
ETA IRUDI ESKUBIDEEN BABESA**

ZUZENBIDEKO GRADUA

2019/2020 IKASTURTEA

EGILEA: IGONE GONZALEZ DE ZARATE LEZA

ZUZENDARIA: MAITE ORIA ELGARRESTA

AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	2
I. SARRERA	3
II. MARKO TEORIKO ETA LEGALA.....	5
2.1 Ohorerako, Intimitate pertsonal eta familiarerako eta norberaren irudirako eskubideak	
5	
2.1.1 Ikuspegi filosofikoa.....	5
2.1.2 Ikuspegi penala.....	15
2.1.3 Ikuspegi Zibila.	20
III. ADINGABEEN OHORE, INTIMITATE ETA NORBERAREN IRUDIRAKO	
ESKUBIDEAK SARE SOZIALETAN	27
3.1 Adingabeen jarduteko gaitasuna	27
3.2 Internet eta Sare Sozialen egoera	32
3.2.1 Adingabeen ohore, intimitate eta irudi eskubideek interneten jasan ditzaketan	
esku-sartze ez-zilegiak.	33
3.2.2 Adingabeen babes indartua.	36
IV. GURASOEK SEME-ALABEN OHORE, INTIMITATE ETA IRUDIAN ESKU-	
SARTZE EZ-ZILEGIAK INTERNET BIDEZ BURUTZEN DITUZTEN KASUAK.....	41
4.1 Pontevedrako Entzutegi Probintzialeko 1123/2015 epaia.....	42
4.2 Auzitegi Goreneko 2856/2015 epaia.....	43
4.3 Bartzelonako Entzutegi Probintzialeko 4328/2018 epaia	44
V. GURASOEK ADINGABEAREN OHOREA, INTIMITATEA, EDOTA IRUDIA SARE	
SOZIALETAN URRATZEAGATIKO ERREKLAMAZIOA.....	46
VI. ONDORIOAK	49
VII. ITURRI BIBLIOGRAFIKOAK.....	51
VIII. ITURRI JURISPRUDENTZIALAK	53
IX. LEGEDIA	54

LABURDURAK

AG	Auzitegi Gorena
AGE	Auzitegi Gorenaren epaia
art.	artikulua
artk.	artikuluak
BOE	Estatuko Boletin Ofiziala
bol.	Bolumena
ECLI	Europar eremuko jurisprudentzia identifikatzailea
ed.	edizioa
EK	Espainiako Konstituzioa
EPE	Entzutegi Probintzialeko epaia
KAA	Konstituzio Auzitegiko Autoa
KAE	Konstituzio Auzitegiaren Epaia
koord.	koordinatzailea
KZ	Kode Zibila
LO	Lege Organikoa
OJ	oinarri juridikoa
or.	orrialdea
orr.	Orrialdeak
Roj	Estatu eremuko jurisprudentzia identifikatzailea
ZK	Zigor Kodea
zk.	Zenbakidun
zuz.	Zuzendaria

I. SARRERA

Intimitate eskubidea, gizaki orok gure bizitza pribatua izateko, eta bizitza pribatu honen zein arlo erakutsi nahi dugun kontrolatzeko, babes gorena duen Oinarrizko Eskubidea da. Intimitate kontzeptuaren esanahia kulturala izateaz gain, gizartearen aurrerapenekin batera aldatuz doa.

Gaur egungo gizartean, sare sozialei ematen zaien erabilera ugaria dela eta, intimitatearen babesak, sare sozialen eremura zabaltzen da. Egunerokotasunean denbora adierazgarri bat eskaintzen zaie; eta horren ondorioz, gizartean harremanak mantentzeko modua aldatu egin da, sarean bizitza paralelo bat sortzera arte. Norberaren intimitatea erakusteko edo komunikatzeko bide dira plataforma hauek, non erabiltzaile bakoitzak aukera duen bere bizitza pribatuaren zein arlo partekatuko duen erabakitzeke; eta horrela, erabiltzaileek identitate digitalak sortzen dituzte.

Informazio pertsonala sarera igotzeak arrasto digitala uzten du, eta honek etorkizunean norberari edo hirugarrenei kalteak eragin liezaieke, sarean bizitza pribatuaren erakusketa egiten baita, askotan, datu pribatuen titularraren borondaterik gabe. Horregatik datu pertsonalak kontu handiz erabili behar dira; izan ere, datu pribatu hauek era azkarrean eta errazean mugitzen dira sarean zehar, edozein erabiltzailerentzat ikusgarri bihurtuz, eta norberaren edo hirugarrenen intimitate eskubidea arriskuan jarriz.

Egunerokotasuna erakusteko bide diren heinean, ugariak dira gurasoek haien seme-alaba adingabeak ikusgai jartzen dituzten kasuak, adingabeen identitatea ezagutzeaz gain, bere izaera ezagutarazteraino. Ondorioz, intimitatea hain berezkoa eta pertsonala den bizitzaren esparru bat izanda, kontu handiz tratatu behar dena, eta zuzenbideak hainbeste babesten duen eskubidea izanik, gurasoek haien seme-alaben gehiegizko esposizioa egiteak ez dio adingabearen bizitza pribatuari eta haren intimitate, ohore edota norberaren irudi eskubideari inolako babesik eskaintzen.

Gizabanako bakoitzak bere intimitatearen publikotasuna kontrolatzeko aukera eta eskubidea du, baina adingabeen kasuan gurasoak dira aukeraketa hau egiten dutenak, adingabearen borondatea eta eskubideak kontutan izan gabe. Beraz, nahiz eta adingabeak euren intimitate eskubidearen titular izan, kasu hauetan ez zaie haien intimitatea babesteko aukerarik ematen, ez baitute haien datu pribatuen kontrola.

Horregatik, lan honen helburua adingabeek haien intimitate eskubidearekiko jarduteko gaitasuna aztertzea da, eta honekin batera, gurasoek zein puntutaraino duten bere seme-alaben bizitza pribatuari buruz erabakitzeke aukera. Eta honekin batera, adingabeen gurasoek sare sozialetan egiten duten erabilera arduragabearen ondorioz adingabearen ohorea, intimitatea edota irudia urratzen den kasuetan, adingabeari legeak ematen dion babesa aztertuko da.

II. MARKO TEORIKO ETA LEGALA

2.1 Ohorerako, Intimitate pertsonal eta familiarerako eta norberaren irudirako eskubideak

2.1.1 Ikuspegi filosofikoa.

Nortasunaren eskubideak, giza izaeratik eta pertsona hutsa izateagatik eratortzen diren eskubide subjektiboak dira, gizakiaren esfera pertsonalena babesten dutenak, alderdi fisikoan zein espiritualean. Honi esker, subjektuak gauza edo balore bat gozatzeko eta xedatzeko aukera, edota beste pertsona bati prestazio bat exijitzeko aukera izango du, betiere fede onaren mugen barruan, Espainiako Errege Akademiak adierazten duen moduan¹. Halaber, duintasunaren adierazpena diren heinean, ukaezinak, besterendu ezinak eta preskriba ezinak dira².

Nortasunaren eskubideen zehaztapena oso gai gatazkatsua izan da doktrinarentzat, hala ere, ia autore gehienek aho batez nortasunaren eskubide kontsideratu dituzte adibidez, intimitaterako eskubidea, ohorerako eskubidea, norberaren irudirako eskubidea, bizitzarako eskubidea, norberaren izenerako eskubidea etab. Beraz, bistan da, doktrinak nortasunaren eskubide kontsideratu dituela gizakiaren ongizatea modu integral batetik; hau da, ongizatea arlo fisikotik zein psikologikotik babesten duten eskubideak.

Konstituzio Auzitegiak³ adierazten duen moduan; Espainiako Konstituzioak 18.1 artikuluan⁴ arautzen dituen eskubideak (ohore, intimitate eta norberaren irudirako eskubideak), bizitza pribatua babesten duten nortasunaren eskubideak dira; hain zuzen ere, norberaren eta familiaren intimitaterako espazio bat babesten dutenak. Hortaz, eskubidearen titularrari haren bizitzaren aspektu konkretu batzuk pribatu mantentzeko

¹ Espainiako Errege Akademia, eskubide subjektiboak: “*Civ. Poder jurídico reconocido a un sujeto de derecho que le permite disfrutar y disponer de una cosa como de un valor o exigir a otra persona una prestación, dentro de los límites de la buena fe, la prohibición de abusos de derecho y su ejercicio antisocial, y el respeto a las demás prohibiciones impuestas por la ley. Se distingue de las facultades jurídicas singulares que derivan de relaciones jurídicas específicas*”.

² Espainiako Errege Akademia, nortasunaren eskubideak: “*Const. Derechos subjetivos inherentes a la persona, en cuanto manifestaciones de la dignidad humana, irrenunciables, inalienables e imprescriptibles, que protegen frente a todos la integridad del ser humano en su vertiente física y espiritual*”.

³ KAE 1987-10-30 (ECLI:ES:TC:1987:170), (4. OJ.).

⁴ EK 18. art.: “*1. Ohore, norberaren eta senitarteko barrukotasuna eta bakoitzaren irudi eskubidea garantizatzen da. 2. Bizilekua sartzinezkoa da. Bertan jabearen edo epaile erabakiaren baimenik gabe ezin da sartu ez eta erregistratu ere, delitu nabarian izan ezik. 3. Komunikapen sekretua garantizatzen da eta, bereziki, posta, telegrafo eta telefonoenak, epai erabakirik izan ezik. 4. Legeak informatikaren erabilera mugatuko du hiritargoaren ohore, norberaren eta senitarteko barrukotasuna eta beraien eskubideen ihardun osoa garantizatzen*”.

aukera, eta, esku-sartze ez-zilegien aurrean babesa ematen diote. Horregatik, Konstituzioak 18.1 artikuluan jasotzen dituen eskubide hauek oso lotura estua dute haien artean⁵.

Hala ere, LA CRUZ BERDEJO autoreak⁶ adierazten duen moduan, nahiz eta lotura estua izan pertsonari oso lotuta daudelako, eta, haien ingururik pribatuena, intimoena eta espiritualena babesten dutelako, eskubide hauek bata bestearikiko independientek eta autonomoak dira. Hortaz, doktrinan zein jurisprudenzian ohorerako eskubidearen, norberaren irudirako eskubidearen eta intimitatearen eskubidearen artean askotan ezberdintasunik egiten ez den arren, errealitatea da, esan bezala, eskubide hauek oso antzekoak direla, baina aldi berean, bata bestearikiko autonomoak direla.

a. Intimitaterako eskubidea.

Intimitaterako eskubidea Espainiako Konstituzioko 18.1 artikulua araututako nortasunaren eskubideen artean kokatzen den, eta haien artean gailentzen den oinarrizko eskubidea da. Intimitate kontzeptua definitzeko, kontutan izan behar da intimitate kontzeptuaren esanahia gizartearen arabera dela; hau da, kulturala den kontzeptua da, eta gizartea garatzen doan heinean, intimitateak esanahi ezberdinak jasotzen ditu; horregatik, eskubide honen babes eremua denborarekin garatzen doa ere bai.

Honen adibide argia dira, Europar Batasuneko 2016/679 erregelamendua, eta, 3/2018 Lege Organikoa. Izan ere, arau hauek gizarte globalizatuaren ondorioz, gizabanakoak bere datu pertsonalak kontrolatzeko beharraren aurrean sortu ziren. Hain zuzen ere, teknologia berriek eta sare sozialek gaur egun duten erabilera ugariaren ondorioz, norberaren edota hirugarrenen intimitatea urratu daitekeelako, datu pribatuak publiko bihurtzean titularraren baimenik gabe edota haren borondatearen kontra. Argi ikus daiteke beraz, intimitate kontzeptuaren esanahia gizartearen aurrerapenekin batera aldatuz doala.

Nortasunaren eskubide kontsiderazioak, kritika bat jaso zuen, eta honen arrazoia, subjektua bera (eskubidearen titularra) objektua den eskubide bat onartzearen zailtasuna

⁵ GAVARA DE CARA, J.C., DE MIGUEL BÁRCENA, J. (2015: 65 or.).

⁶ LA CRUZ BERDEJO (1990: 71-72 orr.): *“Tienen en común el ir muy ceñidos a la propia persona, proteger su entorno espiritual más próximo (...), ser, como otros derechos de la personalidad pero mas aun si cabe, “personalísimos” de su titular; y, sin perjuicio de ciertas dimensiones o manifestaciones de los mismos (...), sólo existen en vida del interesado”*.

izan zen. Horregatik, autore batzuk nortasunaren eskubide deitu beharrean, egokiago ikusten zuten ondasun juridiko gisa kalifikatzea. Hala ere, doktrinaren gehiengoa, hurrengo arrazoietan oinarritu zen, eskubide kalifikazioa justifikatzeko eta baieztatzeko:

Hasteko, Espainiako Konstituzioak berak, eskubide gisa kalifikatzen ditu nortasunaren eskubideak. Zehazki, Konstituzioak nortasunaren eskubide nagusiak Oinarrizko Eskubideen artean jasotzen ditu 15. eta 18. Artikuluetan. Gainera, Oinarrizko Eskubide izateagatik lortzen den babesari dagokionez, handiagoa da babestutako Ondasun Juridikoa kontsideratzearen bidez lortzen dena baino; Ondasun Juridikoek eskubide konstituzionalak baino babes-maila txikiagoa baitute.

Horregatik, hain pertsonalak eta hain intimoak diren errealitateei babes-maila egoki bat emateko, nortasunaren eskubide izendatzen dira, eta Oinarrizko Eskubideen babes ematen zaie. Hala ere, honek ez du esan nahi eskubide hauek Ondasun Juridiko kontsideratu behar ez direnik, hain zuzen ere, errealitate intimo eta pertsonal hauek Ondasun Juridikoa osatzen duten objektuak dira, zeina kasuan kasuko eskubidearen bitartez babesten den. Baina kontuan izan behar da nahiz eta Ondasun Juridiko kontsidera daitezkeen, Oinarrizko Eskubideak direla eta kategoria honen babes dutela.

SAGARDOY BENGOCHEAk dioenez⁷, intimitate eskubideak askotariko adierazpenak ditu, eta hauek guztiak pertsonaren duintasunari oso lotuta daude. Adierazpen hauek dira; adibidez, intimitate fisikoa, intimitate pertsonala, intimitate pertsonal psikikoa, intimitate pertsonal ekonomikoa, intimitate pertsonal sozial eta profesionala, intimitate pertsonal informatikoa, intimitate pertsonal ideologiko eta erlijiosoa, sexu- eta ohitura-intimitatea, beste pertsona batzuekiko komunikazioaren intimitate pertsonala eta intimitate pertsonal sindikala⁸.

Hain zuzen ere, pertsona edo gizakiaren garapenerako ezinbestekoa den eskubidea da, bizitza oso eta duin bat izatea bermatzen duena; hau da, gizakiaren ongizatea babesten duena. Horregatik intimitate eskubidea eskubide subjektiboa da, pertsona izate hutsagatik egokitzen diren eskubidea baita.

Intimitate eskubideak duen konfigurazio juridikoari dagokionez, hau oso berria da. Nazioartean aitortu egin zen lehendabiziko aldiz 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio

⁷ SAGARDOY BENGOCHEA, J.A. (2005: 56. or.): “*el derecho a la intimidad es proteiforme, pues tiene variadas manifestaciones, todas ellas ligadas a la dignidad humana...*”.

⁸ GONZÁLEZ PORRAS, A.J. (Egilea); BELDA PÉREZ-PEDRERO, E. (Zuz) (2015: 105. or.).

Unibertsalaren, 12. Artikuluan⁹. Honen ostean, beste testu batzuk aitortu zuten intimitatea (1950ko Giza Eskubideen, eta Oinarrizko Askatasunen babeserako Europako Hitzarmenak¹⁰ 8.1 artikuluan, eta 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 17. Artikuluan¹¹) eta honi esker, intimitateak nazioarteko Oinarrizko Eskubidearen konfigurazio juridikoa jaso zuen.

Horrela, intimitatea geroz eta pisu handiagoa hartuz joan zen 1980. urtean S.D WARREN eta L.D. BRANDEIS *“the right to privacy”* deituriko monografia batean, intimitaterako eskubidearen oinarri tekniko eta juridikoak idatzi zituztenetik. Hain zuzen ere, nortasun eskubideen multzoan, eskubide autonomo eta independente baten beharra ikusten zuten. Horregatik, *The right to privacy* monografia honen helburua, pertsonaren bortxaezintasuna oinarritzat hartuz, intimitatearen eskubidearen errekonozimenduaren beharra ezagutaraztea zen; eta horrekin batera, legediak intimitateari behar bezalako babesa ematen zion aztertzea, eta ematekotan, babes honen jatorria eta nondik norakoak aztertzea¹². Beste hitzetan, testuaren funtsa, pertsonari jatorriz, eskubide bat egokitzen zaiola azaltzea zen; hau da, intimoa eta berezkoa den espazio bat, hirugarrenen esku-sartzetik babesten duena, eta eskubidearen titularrari bere eremu intimo horretan norik parte har dezakeen erabakitze ahalmena ematen diona. Ondorioa, intimitatearen definizio bat ematea, eta gizartea eskubide honen garrantziaz kontzientziazatzea izan zen.

Baina jatorri anglosaxoiaz aparte, Alemaniako Auzitegi Konstituzionala ere intimitatea azaltzen saiatu zen Esferen Teoriarekin. Intimitaterako eskubidearen kontzepzio tradizional batean oinarritzen dena, eta indibidualaren, pribatuaren eta intimitatearen hiru esfera bereizten dituen. Honen aurrean beste teoria bat aurkeztu

⁹ 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak lehendabiziko aldiz jaso zuen intimitatearen babesa 12. Artikuluan: *“Nadie será objeto de injerencias arbitrarias en su vida privada, su familia, su domicilio o su correspondencia, ni de ataques a su honra o a su reputación. Toda persona tiene derecho a la protección de la ley contra tales injerencias o ataques”*.

¹⁰ 1950ko Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmenak 8.1 artikuluan jaso zuen intimitatearen babesa: *“Derecho al respeto a la vida privada y familiar, 1. Toda persona tiene derecho al respeto de su vida privada y familiar, de su domicilio y de su correspondencia”*.

¹¹ 1966KO Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak 17. Artikuluan jaso zuen intimitatearen babesa: *“1. Nadie será objeto de injerencias arbitrarias o ilegales en su vida privada, su familia, su domicilio o su correspondencia, ni de ataques ilegales a su honra y reputación.*

2. Toda persona tiene derecho a la protección de la ley contra esas injerencias o esos ataques”.

¹² SAMUEL D. WARREN; LOUIS D. BRANDEIS (1890: 197. or.): *“It is our purpose to consider whether the existing law affords a principle which can properly be invoked to protect the privacy of the individual; and, if it does, what the nature and extent of such protection is”*.

da, Mosaikoaren Teoria deritzona, datu isolatuek elkarrekin esanahi jakin bat osatzen dutela azaltzen duena, baina bata bestea gabe esanahirik ez dutela azaltzen duena¹³.

Hauek izan dira mendebaldeko kulturaren, historian zehar intimitateari eman zaizkion definizioak. Gaur egun intimitatearen kontzeptua ez da asko aldatu, baina ukaezina da teknologiaren aurrerakuntzarekin, eta sare sozialen arrakastaren ondorioz, pertsonen arteko harreman edo erlazio era aldatu egin dela, sare sozialetan pribatua, eta askotan intimoa den informazioa partekatzean oinarritzen baitira gaur egungo harremanak. Beraz, esan daiteke intimitatearen kontzeptuak gaur egun norbanakoak gainerakoek ekintzaren eta ezagutzaren aurrean esparru propio eta erreserbatu bat izatea inplikatzeko. Konstituzio Auzitegiak adierazten duenez¹⁴, gure kulturaren jarraibideen arabera, beharrezkoa da bizitzaren gutxieneko kalitatea mantentzeko; hau da, pertsonaren ongizate fisikoa eta psikologikoa bermatzeko.

Espainiako Errege Akademiak intimitatea definitzen du pertsonaren aspektu pertsonalena, pribatuena eta erreserbatuena bezala, arlo pertsonalean zein arlo familiarrean¹⁵. Hau da, intimitatea pertsona orok duen eskubide bat da zeinaren bidez norberaren bizitza pribatuaren babesa bermatzen den; MURILLO DE LA CUEVAK azaltzen duen moduan, intimitate eskubidearen ezaugarri nagusia, baimendu ez den esku-sartze oro baztertzeko ahalmena da da¹⁶.

Espainiako Konstituzioari dagokionez, nahiz eta 18.1 artikuluan norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea bermatzen den, eta Oinarrizko Eskubide gisa jasotzen eta babesten den, ez da zuzenean intimitatearen esanahia definitzen. Era berean, Ohore, Intimitate, eta Norberaren Irudiaren Babes Zibilari buruzko 1/1982 Lege Organikoak ere ez du intimitatea definitzen, nahiz eta honi erreferentzia egiten dion, eta haren babesa arautzen duen. Beraz, intimitatearen definizio bat aurkitzeko, doktrinara eta jurisprudenziara jo beharra dago; honen arrazoia da, Konstituzio Auzitegiak azpimarratzen duen moduan, intimitatearen kontzeptua gizartearen aurrerapenekin

¹³ GONZÁLEZ PORRAS, A.J. (Egilea); BELDA PÉREZ-PEDRERO, E. (Zuz); (2015: 106 or.).

¹⁴ KAE 1988-12-02 (ECLI:ES:TC:1988:231); (3. OJ.): “*Los derechos a la imagen y a la intimidad personal y familiar reconocidos en el art. 18 de la C.E. aparecen como derechos fundamentales estrictamente vinculados a la propia personalidad, derivados sin duda de la «dignidad de la persona», que reconoce el art. 10 de la C.E., y que implican la existencia de un ámbito propio y reservado frente a la acción y conocimiento de los demás, necesario - según las pautas de nuestra cultura- para mantener una calidad mínima de la vida humana. Se muestran así esos derechos como personalísimos y ligados a la misma existencia del individuo*”.

¹⁵ Espainiako Errege Akademia, intimitatearen definizioa:

“*Zona espiritual íntima y reservada de una persona o de un grupo, especialmente de una familia.*”.

¹⁶ LUCAS MURILLO DE LA CUEVA, P (1990: 60 or.): “*el derecho a la intimidad se caracteriza por el rechazo a toda intromisión no consentida*”.

batera garatuz doala¹⁷, hau da, intimitate kontzeptuak esanahi aldakorra duela, gizartearen araberrakoa dena.

Horiek horrela, ondorioztatu daitekeena da, intimitate eskubideak norberaren bizitza pribatuarekin zerikusia duena babesten duela; horregatik, Espainiako Konstituzioko 18.1 artikulua, intimitatearekin batera, norberaren irudirako eskubidea, eta ohorerako eskubidea arautzen ditu. Edonola ere, haien artean lotura handia izan arren, eskubide ezberdinak dira, hurrengo puntuetan aztertuko den bezala.

b. Ohorerako eskubidea, eta intimitate eskubidearen arteko ezberdintasuna.

Ohorerako eskubidea, GARRIGA DOMINGUEZ autoreak azaltzen duen moduan¹⁸, gizaki orok bere duintasunarekin bateragarria den moduan tratatua izateko eskubidea da. Hain zuzen ere, MARTINEZ DE PISON autoreak adierazten duen moduan, gizakiak bere buruarekiko duen estimua¹⁹ eta, pertsona orok besteen aurrean duen izen ona edo ospea mantentzeko interesean datza²⁰. Ohorerako eskubidearen bidez babesten den Ondasun Juridikoa ohorea da, norberak bere buruarekiko duen estimuan, eta besteen begirunean oinarritzen dena. Intimitatearen eskubidearen kasuan berriz, babesten dena norberaren bizitzaren zati bat isilpean edo pribatuan gordetzea erabakitzekeo eskubidea da.

Izan ere, BERDUGO GOMEZ DE LA TORRE autoreak azaltzen duenez²¹, ohorea, pertsonak komunitatean duen parte-hartzearekin dauka zuzeneko lotura; intimitatearen kasuan aldiz, lortu nahi dena da, bizitza sozialean aktiboki parte ez hartzeko esparru bat bermatzea.

¹⁷ KAE 1988-12-02 (ECLI:ES:TC:1988:231): “*la esfera de la intimidad personal viene determinada por las ideas que prevalezcan en cada momento en la sociedad y por el propio concepto y las pautas de comportamiento que cada persona según sus actos mantenga*”.

¹⁸ GARRIGA DOMINGUEZ, A. (2016: 83. or.); “*la idea de que es el derecho que tiene todo ser humano a ser tratado de manera compatible con su dignidad*”.

¹⁹ MARTÍNEZ DE PISÓN, J. (2016: 101 or.) “*Es definido como el aprecio o estimación que el ser humano tiene por sí mismo y cuya violación conlleva un claro menosprecio hacia la persona*”.

²⁰ MARTINEZ DE PISON, J. (2016: 102 or.): “*se concreta en el interés de toda persona por el prestigio, reputación o buen nombre que goce ante los demás*”.

²¹ BERDUGO GÓMEZ DE LA TORRE, I. (1987: 62. Or.): “*El honor está en contacto directo con la participación del individuo en la comunidad; en la intimidad, por el contrario, lo que se pretende es, en último término, garantizar un ámbito de no intervención activa en la vida social, bien a través de asegurar la falta de información, bien mediante el control sobre dicha información*”.

Auzitegi Gorenak, ohorearen eskubideari buruz adierazten du²² doktrinan eta jurisprudenzian, eta Auzitegi Konstituzionalaren doktrina orokorrean, babestu beharreko ohorerik ez dagoen kasuetan, ez dela kontutan hartzen. Hau da, hurrengo hiru baldintza hauek betetzen diren kasuetan, ohorerako eskubidea urratzen ez dela kontsideratzen da:

1. Albistearen egiazkotasuna,
2. Garrantzia eta interes publikoa
3. Adierazpen iraingarri edo difamatzailerik eza

Beraz, publikazioaren egiazkotasuna dagoenean, garrantzia eta interes publikoa existitzen denean adierazpen iraingarri edo difamatzailerik eman gabe, jurisprudenziak kontsideratzen du ohorerako eskubidea ez dela urratzen.

c. Norberaren irudirako, eta intimitaterako eskubidearen arteko ezberdintasuna.

Nahiz eta bi eskubide hauek lotura estua izan, eskubide autonomoak dira bata bestearikiko. Hala ere, Auzitegi Konstituzionalaren doktrinari jarraituz, ezin da ukatu pertsona baten irudiaren zabaltzearekin edo argitaratzearekin, haren intimitaterako edo ohorerako eskubidea urratu daitekeela. Konstituzio Auzitegiak zehazten du²³ norberaren irudirako eskubidearen urrapenak pertsonaren esfera pertsonala kaltetzen duela, baina, ez duela zertan haren bizitza intimoa, ezta haren ohorea ere kaltetu. Konstituzio Auzitegiak dioenez, norberaren irudirako eskubidea, giza duintasunetik eratorria eta pertsonen dimentsio morala babestera zuzendua dagoen eskubidea da; eta Konstituzio Auzitegiarekin ados, norberaren irudia urratzeak ez du zertan pertsonaren intimitatea eta ohorea kaltetu, izan ere, ez dio pertsonaren ospe onari eragiten, ezta bizitza intimoa erakusten ere.

Eskubidearen titularrak, bere ezaugarri fisiko pertsonalek izan dezaketzen zabalkuntza publikoa zehazteko ahalmena izango du eskubide honi esker, Konstituzio Auzitegiak

²² AGE 2009-09-08 (Roj:STS 583/2009), (5. OJ.).

²³ KAE 2001-03-26 (ECLI:ES:TC:2001:81), (2.OJ): “*No cabe desconocer que mediante la captación y publicación de la imagen de una persona puede vulnerarse tanto su derecho al honor como su derecho a la intimidad. Sin embargo, lo específico del derecho a la propia imagen es la protección frente a las reproducciones de la misma que, afectando a la esfera personal de su titular, no lesionan su buen nombre ni dan a conocer su vida íntima*”.

adierazten duen moduan²⁴. Hau da, baimenik ez duen hirugarren batek beste baten irudia lortzea, erreproduzitzea edo argitaratzea eragoztean datza, edozein dela ere haren helburua (informazioa, merkataritza, zientzia, kultura...).

GARRIGA DOMINGUEZ autoreak azaltzen duenez²⁵, pertsona baten irudiaren bitartez, hura ezagutzeko, indibidualizatzeko eta identifikatzeko aukera dago, gizabanako baten identitate fisikoko ezaugarriak erakusten direlako, horregatik gainerakoek hura ezagutzeko aukera izango dute. Ondorioz, pertsonaren identifikazioa ekiditeko, norberaren irudirako eskubideak, titularrari bere irudiaren erabilera, erreproduzitzea edo zabaltzearen kontrola izatea ahalbidetzen dio, haren esfera morala eta garapen askea babestuz, eta bere eremu pribatua bermatuz.

Auzitegi Gorenak norberaren irudirako eskubidea horrela definitzen du²⁶: Nortasunaren eskubidea da, giza duintasunetik eratorritakoa, eta pertsonen dimentsio morala babestera bideratua dago. Horrez gain, titularrari bere ezaugarri fisiko pertsonalek sortutako informazio grafikoaren publikotasuna zehazteko eskubidea ematen dio, eta gainera, baimenik ez duen hirugarren batek norberaren irudia lortzea, erreproduzitzea edo argitaratzea eragozteko eskubidea ematen dio, honen helburua kontutan izan gabe.

d. Pribatutasuna, eta intimitatearen arteko ezberdintasuna.

Praktika juridikoan, intimitatearen eskubideari buruz hitz egiterako orduan, edota eskubide honi erreferentzia egiterakoan, askotan hitz ezberdinak erabili izan dira intimitatearen sinonimo bezala. Kasu askotan hitz horiek ez dira intimitate kontzeptuaren sinonimo, ondorioz, justizia administrazioa nahastu eta eskubide hauen

²⁴ KAE 2001-03-26 (ECLI:ES:TC:2001:81), (1.OJ): *"En su dimensión constitucional, el derecho a la propia imagen consagrado en el art. 18.1 CE se configura como un derecho de la personalidad, derivado de la dignidad humana y dirigido a proteger la dimensión moral de las personas, que atribuye a su titular un derecho a determinar la información gráfica generada por sus rasgos físicos personales que puede tener difusión pública. La facultad otorgada por este derecho, en tanto que derecho fundamental, consiste en esencia en impedir la obtención, reproducción o publicación de la propia imagen por parte de un tercero no autorizado, sea cual sea la finalidad - informativa, comercial, científica, cultural, etc.- perseguida por quien la capta o difunde".*

²⁵ GARRIGA DOMINGUEZ, A. (2016: 87. Or).

²⁶ AGE 2011-09-06 (Roj:STS 583/2011), (4. OJ): *"el derecho a la imagen es un derecho de la personalidad, derivado de la dignidad humana y dirigido a proteger la dimensión moral de las personas, que atribuye a su titular un derecho a determinar la información gráfica generada por sus rasgos físicos personales que puede tener difusión pública (STC 83/2002, de 22 de abril) y que tiene un aspecto negativo, como facultad de exclusión y un aspecto positivo, como facultad de aprovechamiento; es, por tanto, una facultad del interesado a difundir o publicar su propia imagen y, por ende, su derecho de evitar su reproducción".*

babes eraginkorra oztopatu daiteke. Gehien erabiltzen den hitz horietako bat “pribatutasuna” da; hain zuzen ere, doktrinan oso eztabaidagarria da intimitate eta pribatutasun kontzeptuen ezberdintasuna, doktrinaren alde batek ez baitu kontzeptu hauen arteko bereizketarik egiten (adibidez, Konstituzio Auzitegiaren 642/1986, uztailearen 23ko Autoan²⁷. Honek intimitate eskubideak, pertsonaren bizitza pribatua babesten duela adierazten baitu. Baina errealitatea da, intimitate eskubideak bizitza pribatuko aspektu intimoenak babesten dituela, nahiz eta hauek pribatuak izan).

Pribatutasun kontzeptua komunikabideek gehien zabaltzen dutenetako bat da, eta aldi berean hizkuntzaren adituek araudi-gaietan gehien eztabaidatu duten gaietako bat. Doktrinan eta Jurisprudenzian pribatutasuna, *privacy*ren baliokide gisa erabiltzen da, bizitza pribatuaren babesari erreferentzia egiteko (zeinak ohorerako eskubidea, norberaren irudirako eskubidea eta intimitaterako eskubidea biltzen edo jasotzen dituen)²⁸.

DÍAZ ROJO autoreak adierazten duenez, hiztegi batean unitate lexiko bat erregistratuta egoteak, zuzena dela esan nahi du, eta ondorioz, akatsik egin gabe erabil daitekeela²⁹. Gaztelania hizkuntzaren hiztegian pribatutasuna hala definitzen da: “*Ámbito de la vida privada que se tiene derecho a proteger de cualquier intromisión*”. Hau da, pribatutasuna da gizakiak haren bizitza pribatuaren eremuan inor ez sartzeko duen eskubidea, eta babes juridikoa duena.

GONZALEZ PORRASek azaltzen duen moduan, pribatutasuna³⁰, latineko “*privatus*” hitzetik dator. Honek erlazio handia dauka jabetzarekin: eremu pribatua, erabilera pribatua, mezu pribatua, bilera pribatua etab. Hauek guztiak publikotasunetik bereizten dira. Baina aurretik jarritako adibideak oinarritzat hartuta, “pribatu” hitza “intimo” hitzarekin ordezkatzean, hitzen esanahi semantikoa aldatzen da: eremu intimoa, erabilera intimoa, mezu intimoa, edo bilera intimoa. Kontzeptu hauen

²⁷ KAA 1986-07-23 (ECLI:ES:TC:1986:642A.), (3.OJ): “*el derecho a la intimidad constitucionalmente garantizado por el art 18 en relación con un área espacial o funcional de la persona precisamente en favor de la salvaguarda de su privacidad, que ha de quedar inmune a las agresiones exteriores de otras personas o de la Administración Pública.*”.

²⁸ GONZÁLEZ PORRAS, A.J. (Egilea); BELDA PÉREZ-PEDRERO, E. (Zuz); (2015: 54-55 orr.).

²⁹ DÍAZ ROJO, J.A. (2002: 2 or.).

³⁰ Espainiako Errege Akademia, pribatu kontzeptuaren definizioa:

“1. *adj. Que se ejecuta a vista de pocos, familiar y domésticamente, sin formalidad ni ceremonia alguna.*

2. *adj. Particular y personal de cada individuo.*

3. *adj. Que no es de propiedad pública o estatal, sino que pertenece a particulares*”.

konparaketan oinarrituta, argi ikus daiteke pribatutasuna eta intimitatea ez direla sinonimoak³¹.

Hau da, intimitateaz hitz egiten denean, pertsonaren arlo edo eremu sakonago bati egiten zaio erreferentzia³². Horregatik esan daiteke intimitatea pribatutasunaren barruan kokatzen dela; honek esan nahi du intimoa den guztia pribatua izango dela printzipioz, norberaren aukeraren arabera, titularrak publikoa bihurtzeko aukera baitu. Baina, pribatua den guztiak aldiz, ez du zertan intimoa izan.

e. Babes konstituzionala.

Nortasunaren eskubideak pertsona izatetik eta duintasunetik eratortzen diren eskubideak dira. Hauen artean hainbat eskubide aurkitzen dira; hala nola, bizitzarako eskubidea, ohorerako eskubidea, norberaren irudirako eskubidea, intimitaterako eskubidea, osotasun fisikorako eskubidea etab.

Espainiako Konstituzioak, 18.1 artikuluan ohore, intimitate eta norberaren irudirako eskubideak arautzen ditu. Eskubide hauek lotura handia dute haien artean, izan ere, pertsonaren eremu pribatua babesten dute, baina, bata bestearekiko eskubide autonomo eta independenteak dira, aurreko puntuetan arrazoitu den bezala.

Eskubide hauek, nortasunaren eskubideak dira alde batetik, eta Oinarrizko Eskubideak dira bestetik, DE PABLO CONTRERAS, P., MARTÍNEZ DE AGUIRRE ALDAZ, C., PÉREZ ÁLVAREZ, M.A., PARRA LUCÁN M.^a A autoreek adierazten dutenez³³, eskubide hauek ezaugarri bikoitza dute. Hala ere, honek ez du esan nahi bi eskubide desberdinen aurrean gaudenik; hain zuzen ere, eskubide bakar baten aurrean gaude, pertsonaren izaeratik eratortzen dena³⁴, eta hain zuzen ere, hori oinarritzat hartuz, Espainiako Konstituzioak oinarrizko kontsideratu duena, gizakiaren ongizatea babesteko helburuarekin.

³¹ GONZÁLEZ PORRAS, A.J. (Egilea); BELDA PÉREZ-PEDRERO, E. (Zuz); (2015: 56-57 orr.).

³² Espainiako Errege Akademia, intimo kontzeptuaren definizioa: “*Lo más interior o interno*”.

³³ DE PABLO CONTRERAS, P., MARTÍNEZ DE AGUIRRE ALDAZ, C., PÉREZ ÁLVAREZ, M.A., PARRA LUCÁN M.^a A. (2018: 273 or.): “*doble caracterización de los derechos*”.

³⁴ DE PABLO CONTRERAS, P., MARTÍNEZ DE AGUIRRE ALDAZ, C., PÉREZ ÁLVAREZ, M.A., PARRA LUCÁN M.^a A. (2018: 273 or.): “*Nos encontramos ante un derecho que puede justamente ser calificado como natural, en la medida en que deriva de la propia naturaleza humana y es inherente a la dignidad de la persona*”.

Konstituzioak Oinarrizko Eskubide bezala konfiguratzek, hurrengo babes berezia ematen die eskubide hauei: Espainiako Konstituzioaren 168. Artikuluan³⁵ arautzen den Konstituzioaren funtsezko oinarrien erreformarako zorrotasun berezia, eta, batez ere, Konstituzio Auzitegira babes-errekurtsoaren bidez jotzeko aukera, botere publikoek eskubide horiek urratu dituztela salatzeke, eta auzitegi arrunten aurrean, partikular batek eragindako kalte baten ondoriozko kalteak salatzeke (Espainiako Konstituzioko 53.2³⁶ artikulua).

Beraz, intimitatea, irudia, eta ohorea pertsonaren izaera osatzen duten eskubideak direla, eta ongizatea babesten dutela kontuan hartuta, Konstituzioak babes gorena bermatzen die. Eskubide hauek, esate baterako, pertsona bakoitzari bere sentimenduak, pentsamenduak, orientazio sexuala, erlijio sinesmenak eta barru-barrukoak direnak pribatuak mantentzeko aukera ematen diotelako; eta horrekin, pertsonaren ongizatea babesten delako, era integral batean; hau da, fisikoki zein psikologikoki.

2.1.2 Ikuspegi penala.

Sare sozialei dagokienez, hauek informazioa zabaltzeko bide diren heinean, norberaren zein hirugarrenen intimitatea urratzeko arriskua dakarte, askotan hirugarren baten datu pribatuak erabiltzen direlako, zabalduz edo partekatuz, datuen titularraren borondate zein baimenik gabe. Eskubide hauek urratzen direnean, ondorio penala, edo ondorio zibila izan dezakete, egitateen arabera, urrapena zibila edo penala den arabera. Urrapen penala dagoenean, puntu honetan zehar zehatzago aztertuko denez, ondorioa zigorra izango da, eta altuagoa edo baxuagoa izango dena delituaren larritasunaren arabera. Baina, urrapen zibila dagoen kasuetan, ondorioa ez da zigorra izango, erantzukizun zibiletik eratorritako kalte-ordaina baizik. Horregatik, urrapen penala dagoen kasu gehienetan, erantzukizun zibila ezarriko zaio, kaltetuak, kalte-ordaina jaso ahal izateko.

³⁵ EK 168. Art: “*I. Konstituzioaren berrikuste osoa edo zatikakoa proposatzen denean, aurreko Titulua, bigarren kapitulua, I. Tituluko lehen Saila, edo II. Titulua ikutuz, printzipioaren onartzera joko da Ganbara bakoitzeko hirutik bi, eta Gorteen berehalaxeko deuseztatzea. 2. Hautaturiko Ganbarek berretsi beharko dute erabakia eta testu Konstituzional berriaren estudioetan ihardun, hau Ganbara biotako hirutik bik onartua izan beharko du. 3. Gorte Orokorrek aldatzea onartuz, honen berretsipenerako erreferendumera mendu beharko da*”.

³⁶ EK 53.2 Art: “*Edozein hiritarrek eskatu ahal du 14. artikuluan aitortutako askatasun eta eskubideen babespena eta baita bigarren kapituluko lehen atala Auzitegi arruntetan aurretasun eta arintasun oinarrietako prozeduran finkatuz eta, behar denean, Auzitegi konstituzional deritzanaren babes baliabidearen bitartez. Azken baliabide hau kontzientzia objektua, 30. artikuluan aitortutakoa, aplikatu daiteke*”.

MUÑOZ CONDE autoreak azaltzen duenez, intimitate, ohore eta norberaren irudirako eskubideak nortasunaren eskubide delikatuenetarikoak dira, eta zuzenbide penalak babesteko eta mugatzeko zailenetarikoak kontsideratzen dira, zaila baita eskubide hauen kontzeptua argi eta garbi zehaztea babestutako Ondasun Juridiko gisa³⁷.

ZALDIVAR ROBLES autorearekin ados³⁸, lehen hurbilketa batean esan daiteke alderdi negatibo bat nabarmentzen dela; eskubidearen titularrak ez diren besteak, eskubidearen titularraren bizitza pribatutik kanpo uzteko eskubidea litzatekeena. Bigarren adiera batean, norberaren informazioa eta datuak kontrolatzeko, hau da, titularraren borondatearen arabera erabiltzeko eskubide gisa ulertzen dira.

Hala ere, 2015eko erreformaren ondoren, aurreko Zigor Kodeak ematen ziena baino babes handiagoa ematea zaie eskubide hauei. Intimitatea, ohorearekin eta norberaren irudiarekin batera, babes zibilaren xede ere dela kontuan hartu behar da, eta hau zuzenean balia daiteke, 1982ko maiatzaren 5eko, Ohore, Intimitate, eta Norberaren Irudiaren Babes Zibilari buruzko 1/1982 Lege Organikoaren bitartez.

Hain zuzen ere, batzuetan babes penala eta zibila elkartzen dira. Hala gertatzen da eskubide horietako bat urratzea delitu gisa tipifikatuta dagoenean, zehazki, Zigor Kodeko II. Liburuko X. tituluaren tipifikatzen diren delituak burutzen direnean, eta aldi berean, intimitate, ohore edo irudi eskubidea urratzearen ondorioz kalte-galerak jasotzeko eskubidea sortzen denean. Hau da, erantzukizun zibiletik eratortzen diren kalte ordainak emateko obligazioa sortzen denean, 1/1982 Lege Organikoaren bitartez zehaztuko baita.

Bide zibil eta bide penalak eskubide berberak babesten dituzte, baina ondorio edo emaitza ezberdinak eta osagarriak dira bata zein bestean; horrela bata ez du bestea kentzen. Bide penalak ezartzen duen ondorioa, kasu guztietan, zigorra da; eta delituaren garrantziaren eta larritasunaren arabera, altuagoa edo baxuagoa izango da. Urrapen zibila dagoenean berriz, bide zibilak ezartzen duen ondorioa izango da kaltetutako egoeraren berrezarpena, hau da: sortu den kaltearen etetea eskatzea, eta sortutako kalteari balio ekonomiko bat ematea, kaltearen egileak kaltetua indemnitzatu ahal izateko, hau da, kalte-galerak ordaindu ahal izateko.

³⁷ MUÑOZ CONDE, F. (2015:233-234 orr.).

³⁸ ZALDÍVAR ROBLES, J. (2016: 9-13 orr.).

Urrapen penala dagoen guztietan, printzipioz zibila ere egongo da, erantzukizun zibilari dagokionez. Baina urrapen zibila soilik dagoenean aldiz, ez da urrapen penalik egongo. Zigor babesa dagoen kasuetan lehentasunez aplikatuko da, zalantzarik gabe eraginkortasun handienekoa delako, baina delituaren ondoriozko erantzukizun zibila 1/1982 Lege Organikoan ezarritako irizpideen arabera finkatu beharko da.

Zigor kodean delitu hauek tipifikatzearen helburua da pertsonaren borondatea babestea, sekretutzat jo daitezkeen egitate jakin batzuk, pertsona batek edo talde txiki batek bakarrik ezagutzen dituenak ez ezagutaraztea, eta edozein informazio edo egitate kontrolatzeko eskubidea babestea, gizabanakoaren bizitza pribatuan eragina baitu³⁹.

Zigor Kodeko 197. artikuluko lehen atalak jasotzen dituen ekintzei dagokienez, esan dezakegu oinarritzko bi mota jasotzen dituela: Lehenengo jokabide tipikoa dokumentazioaz jabetzea da (paperak, gutunak, mezu elektronikoak, etab.), eta garrantzi penala, edukiaz titularraren baimenik gabe jabetzeko jokabidean datza. Ez da beharrezkoa materiala fisikoki ahalduntzea; gaitzespen penalerako nahikoa izango da agenteak informazio intimoa eskuratzea, gerora erreproduzitzeko aukera ematen duen edozein teknikaren bitartez. Bigarren jokabide zigorgarria telekomunikazioak entzuteko, transmititzeko, grabatzeko edo erreproduzitzeko aparatu teknikoak erabiltzea da.

Elementu subjetoari dagokionez, agenteak edo egileak doluzko jokabidea izatea eskatzen da, hau da, sekretuak ezagutzea edo deskubritzea, edo beste pertsonaren intimitatea urratzea haren baimenik gabe. Egintza subjektu aktiboa datuetara iritsi bezain laster gauzatzen da, subjektu pasiboaren sekretua edo intimitatea benetan ezagutu beharrik gabe. Irizpide horren arabera, komunikazioak antzemateko edo grabatzeko aparatuak erabiltzeko modalitatea aurrera eramango da antzemate edo grabazio hori gertatzen denean, egileak horien xede diren elkarrizketak edo datuak behar bezala ezagutzen dituen ala ez kontuan hartu gabe.

Zigor Kodeko 197.2 artikulua helburua da pertsonen intimitatearen aurkako gehiegikeria informatikoak geldiaraztea. Babestutako Ondasun Juridikoa pertsonen intimitatearekin batera, askatasun informatikoa baita.

³⁹ ZALDÍVAR ROBLES, J. (2016: 9-13 orr.).

Subjektu pasiboa datuen titularra da, eta artikulua "hirugarren" kontzeptua aipatzen duenean, subjektu pasiboari egiten dio erreferentzia. Objektu materiala fitxategi batean erregistratutako datu erreserbatu pertsonalak dira, subjektu pasiboak (datuen titularrak) bere pribatutasunaren eremuan mantendu nahi dituenak.

Subjektu aktiboaren ohiko jokabidea erregistratutako datu pertsonalak eskuratzea, erabiltzea edo aldatzea da, hau da, programa informatiko batean sartutako datu pertsonalak legez kanpo erabiltzea. Jokabide horiek kaltea eragiteko *animusa* egotea eskatzen dute; eta *animus* adierazpena intimitatearen inbasio bat bezala ulertu behar da, eta ez kalte ekonomiko edo ondare-kalte zehatz bat bezala. Gauzatzeari dagokionez, *iter criminis* gertatzen da subjektu aktiboak datua ezagutzen eta eskuratzen duenean.

Zigor Kodeko 197.3 artikuluan zigortzen da aurkitutako datuak edo informazioa eta hartutako irudiak hirugarrenei zabaltzea, ezagutaraztea edo lagatzea. 197. artikuluko lehen edo bigarren ataleko jokabideetako bat eskatzen duen delitu bat da, eta, horrekin batera eskatzen du, agerian utzitako datuak, gertaerak edo irudiak zabaltzea, ezagutaraztea edo hirugarrenei lagatzea. Elementu subjektiboari dagokionez, nahikoa da dolu orokor bat izatea, ez da besteen intimitateari kalte egiteko joera-asmorik eskatzen.

Oinarrizko zigorrak larriagotzearen helburua doktrinak intimitaterako eskubidearen, eta bereziki ahulak diren subjektuei, hala nola adingabeei eta ezgaituei, merezi duten babes berezia ematea da. 2015eko erreformaren ondoren, Zigor Kodearen 197. artikuluko laugarren, bosgarren eta seigarren zenbakietan tipo astunduak eta kualifikatuak honakoa arautzen dute:

- Oinarrizko tipoan (Zigor Kodeko 197.1 edo 2. artikuluetan) tipifikatutako jokabidea, fitxategien edo euskarri informatikoen arduradunak egitea, edo biktimaren datuak baimenik gabe erabili izana.
- 197. artikuluko jokabide tipikoek honako hauei eragitea: Pertsonaren izaera sentikorrenari; adibidez, ideologia, erlijioa, bizitza edo joera sexuala edo, subjektu pasiboa adingabea edo ezgaia den kasuetan.
- Subjektu aktiboaren jokabidea etekina ateratzeko helburua izatea.

Zigor Kodearen 197.7 artikulua 1/2015 Lege Organikoaren erreformak sartutako berrikuntzetako bat izan da. Zigor-arloko legegileak erantzuna eman nahi izan zion

gizartean geroz eta gehiago sortzen den arazoari; hain zuzen ere, konfiantzazko eta intimitateko harreman batean irudiak edo grabazioak trukatzeko direnean, eta, behin harreman hori hautsita, aldeetako batek informazio hori erabiltzen duenean hirugarrenei zabaltzeko, beste pertsonaren baimenik gabe.

197 bis artikulua sistema informatikoetara ilegalki sartzeko jokabideak jasotzen ditu. Intrusismo informatikoaren aurka borrokatu nahi duen tipo bat da, eta *hacker* edo *cracker* bezala ezagutzen direnak zigortu nahi ditu. 2015eko erreformak ohiko jokabidea aldatzen du, eta ekintza horiek informazio-sistema osoan edo zati batean proiektatzen ditu. Artikulu horren bigarren atalean datu informatikoen transmisio ez-publikoaren interzeptazioa zigortzen da. 197. artikuluko bigarren paragrafoko jokabidearekin nahastu liteke, baina kasu horretan Ondasun Juridikoa desberdina da. Hemen lortu nahi dena sistema informatikoen segurtasuna babestea baita, eta ez beste pertsona batzuen sekretuak edo intimitatea, hauek 197.1 eta 2 artikuluan babestuta geratzen baitira.

197 ter artikuluan, hirugarrenei, intimitatearen edo *habeas dataren* aurkako jokabideak gauzatzeko, beharrezko materiala ematen edo zabaltzen dieten pertsonak zigortzen dira; adibidez, programa informatikoak, pasahitzak, etab.

197 quater eta quinquies artikuluek tipo astunduak jasotzen dituzte subjektu aktiboak erakunde edo talde kriminal baten barruan jarduten dutenean, edo pertsona juridiko baten gaineko erantzukizun penala dagoenean.

198. artikulua tipo kualifikatu bat arautzen du, subjektu aktiboaren agintari edo funtzionario publiko izaera izateagatik; honek ordenamendu juridikoa ezagutzen baitu, eta bermatzaile gorenaren ordezkari baita.

199. artikuluan zigortzen da lan harremanengatik edota lanbidearengatik ezagutzen diren sekretuak zabaltzea eta isilekotasun betebeharra ez betetzea. Subjektu aktiboa izaera publikoa eta juridikoa duen jarduera egiten duen profesionala da.

200. artikuluan, pertsona juridikoen datu erreserbatuen babesa arautzen da, datu horiek pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren baimenik gabe ezagutarazten direnean.

Azkenik, 201. artikulua kapitulu honetan araututako arau-hauste penalen pertsegigarritasun baldintzak ezartzen ditu. Kaltetuaren salaketa eskatzen da, delitu erdi-publikoa delako (kaltetuaren legezko ordezkariak ere jar dezake salaketa, edo Ministeritza Fiskalak, biktima adingabea bada, edo babes berezia behar duen desgaituen edo babesgabetuen kasuan). Hala ere, subjektu aktiboa funtzionario publiko bat edo agintaritzatza bat denean, edo delitua egiteak interes orokorreari edo pertsona askori eragiten dienean, arau-hauste penala ofizioski jazarriko da. Era berean, legegileak prozedurari amaiera emateko aukera aurreikusten du akzio penala azkenduz, kaltetutako eskubidearen titularrak barkamena ematen duenean, Zigor Kodearen 130.4 artikuluan araututako kasuetan izan ezik, hau da, biktimak adingabeak edo ezgaiak diren kasuetan izan ezik.

2.1.3 Ikuspegi Zibila.

GARRIGA DOMINGUEZ autoreak azaltzen duen moduan⁴⁰, Europan ohore, intimitate eta norberaren irudiaren eskubideen oinarriak Zuzenbide Zibilean dute jatorria, eta, nortasunaren eskubideei buruzko doktrinan aurkitzen dira. Intimitatearen jatorri historikoari erreparatuz, hau Estatu liberala eraikitzean, burgesiaren eta indibidualismoaren agertzean dago, nahiz eta eskubide honen garapenik handiena XX. mendean zehar eman zen⁴¹. BEJAR, Helena autoreak dioenez, pribatua, espazio publiko batetik bereizten dena da⁴². Hau da, pertsona baten bizitza pribatua, hirugarrenak ez sartzeko eskubidea da, esku-sartzea baimentzen edo onartzen den kasuetan izan ezik. Hortaz, gizabanakoak bere pentsamenduak, sentimenduak eta bere bizitza pertsonaleko edo familiarreko gertaerak partekatu nahi dituen erabakitzeko eskubidea da.

Gizakiok, jaiotzarekin batera eskuratzen dugu nortasuna (KZ 30. art)⁴³. Eta horrekin batera nortasunari dagozkion eskubideak, eta Konstituzioak hauei ematen dien babesa eskuratzen da. Hauen artean, Espainiako Konstituzioak 18.1. artikuluan jasotzen dituen ohore, intimitate eta norberaren irudirako eskubideak daude.

⁴⁰ GARRIGA DOMINGUEZ, A. (2016: 77 or.).

⁴¹ GARRIGA DOMINGUEZ, A. (2016: 79 or.): *“De forma mayoritaria se acepta que el origen histórico de la idea de la intimidad (...), hemos de buscarlo en el momento en el que se construye el Estado liberal y aparece la burguesía y el individualismo, aunque su máximo desarrollo se produce a lo largo del siglo XX”*.

⁴² BEJAR, H. (1990: 34 or.): *“Lo privado es una categoría de un espacio abstraído de lo público”*.

⁴³ KZ 30. Art.: *“La personalidad se adquiere en el momento del nacimiento con vida, una vez producido el entero desprendimiento del seno materno”*.

Zuzenbide Zibilari dagokionez, Zuzenbide Konstituzional eta Zuzenbide Penalak ematen dioten babesarekin parekatuz, babes osagarri bat ematen die eskubide hauei. Arlo zibilean intimitatearen eskubidea arautzen eta babesten duen araua, 1982ko maiatzaren 5eko, ohore, intimitate, eta norberaren irudiaren babes zibilari buruzko 1/1982 Lege Organikoa da.

Adingabeen ohore, intimitate eta irudiaren babes, 1996ko urtarrilaren 15eko adingabearen babes juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoak, eta, 2015eko uztailaren 22ko, haurtzaroaren eta nerabezaroaren babeserako sistemaren aldaketarako 8/2015 Lege Organikoak arautzen dute.

Intimitatea babesten duten eskubideei dagokienez, sekretuak ezagutaraztearen delituek, Zigor Zuzenbidearen babes nagusi bat jasotzen dute. Baina ez da berdina gertatzen norberaren irudirako eskubidearen edo duintasunaren eskubidearen kasuan (irainak edo kalumnia delituak ez diren bitartean) gizartearen sentsibilitateak eragiten baitu gaur egun Oinarrizko Eskubide horien lehen mailako babes, nortasunaren funtsezko ondasunak diren heinean, zuzenbide zibilaren bidez gertatzea. Hala ere, Zigor Zuzenbideak intimitatearen kontrako delituak zigortzeak ez du baztertzen Zuzenbide Zibilaren babes, zehazki, erantzukizun zibila zehazteko.

a. Esku sartze ez-zilegiak.

Zuzenbide Zibilak eskubide hauen defentsan zeregin garrantzitsua du. Hau da, 1/1982 Lege Organikoak arautzen duen bezala, eskubide hauetan esku-sartze ez-zilegi bat dagoenean, eta hau delitua kontsideratzen denean, Zigor Kodean xedatutakoa beteko da. Hala ere, lege honetako irizpideak aplikatuko dira delituaren ondoriozko erantzukizun zibila zehazteko⁴⁴. Erantzukizun zibila, kaltetutako eskubidearen titularrari, kalte fisiko eta moral horiek ekonomikoki ordaintzean datza. Hau da, kalteari balio ekonomiko bat ezartzen zaio urratua izan den eskubidearen titularrari ordaintzeko. Baina kontutan izan behar da, kalte-ordaina pertsonaren duintasuna eta osotasuna errespetatu behar duen zenbatekoa izan beharko dela.

⁴⁴ 1/1982 LO (Xedapen Orokorrak, 1.2 Art): “Cuando la intromisión sea constitutiva de delito, se estará a lo dispuesto en el Código Penal. No obstante, serán aplicables los criterios de esta ley para la determinación de la responsabilidad civil derivada de delito”.

Kalteari dagokionez, kasu honetan, kalte moralak izango dira kasu guztietan. Izan ere, pertsona baten bizitza pribatuan esku-sartzeak pertsona horren nortasunean eta bere bizitza pribatuan eragiten baitu.

Ikuspuntu zibilaren aldetik pertsona batek bere bizitza pribatuan jasan ditzakeen esku-sartze ez-zilegiak 1/1982 Lege Organikoak 7. artikuluan arautzen ditu, eta honako hauek dira:

1. Gailu optikoak edo pertsonen bizitza intimoa entzuteko, filmatzeko, grabatzeko edo erreproduzitzeko balio duen beste edozein bitarteko, edozein lekutan kokatzea.
2. Entzuteko aparatuak, gailu optikoak edo beste edozein bide erabiltzea pertsonen bizitza intimoa ezagutzeko, edo gutun pribatuak ezagutzeko, eta horiek grabatzea, erregistratzea edo erreproduzitzea.
3. Pertsona edo familia baten bizitza pribatuari buruzko gertakizunak zabaltzea, pertsona edo familia horren izen onari eta ospeari eraginez, eta gutunen, memorien edo bestelako barne-idazkien edukia ezagutaraztea edo argitaratzea ere.
4. Pertsona edo familia ezagun baten datu pribatuak ezagutaraztea, datu horien berri ematen duenaren lanbide-jardueraren edo jarduera ofizialaren bidez.
5. Pertsona baten irudia argazki, film edo beste edozein prozeduraren bidez jasotzea, erreproduzitzea edo argitaratzea, bere bizitza pribatuko leku edo uneetan edo horietatik kanpo (zortzigarren artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik).
6. Pertsona baten izena, ahotsa edo irudia erabiltzea publizitaterako, merkataritzarako edo antzeko helburuetarako.
7. Pertsona bat, beste pertsona baten bitartez lausotzen edo lausoarazten denean, honi dagozkion egitateak zabaltzea.

Ikus daitekeenez, esku-sartze ez-zilegiak pertsonaren eremu pribatua urratzen duten ekintzak dira; eta hauek ohore, intimitate eta norberaren eskubideetan gerta daitezke, Oinarrizko Eskubide hauek urratuz. Posible da gainera, bakarra edo bat baino gehiago urratzea; hau da, pertsona baten bizitza pribatuan esku-sartze ez-zilegiak gertatzen direnean, pertsona horren ohorea, intimitatea edota irudia urratu daiteke; eta baita ere, eskubide horietako bat baino gehiago, edota hirurak batera.

Adingabeen kasuan, Adingabeen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoak (1/1996 LO), euren ohore, intimitate eta irudiaren eskubideen esku-sartze ez-zilegiak jasotzen ditu 4. Artikuluan. Legeak dioenez, adingabearen ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidean modu ez-zilegian sartzea ulertzen da kasu hauetan:

Komunikabideetan haren irudia edo izena erabiltzen denean, horrek haren ohorea edo ospea kaltetu dezakeenean, edo haren interesen aurkakoa bada, adingabearen edo haren legezko ordezkarien adostasuna jasota egon arren.

b. Informazio askerako oinarrizko eskubidea.

Espainiako Konstituzioak 18.1 artikuluan jasotzen dituen Oinarrizko Eskubideen artean, eta, 20.1.d) artikuluan jasotzen duen informazio askerako eskubidearen artean gatazkak egoten dira maiz, batez ere, komunikabideei dagokienez, hauek gizartea informatzeko betebeharra izanik, askotan ez dagoelako argi non dagoen informazio askerako muga, eta ondorioz, intimitate, ohore, eta irudi eskubideetan esku-sartze ez-zilegiak egon daitezke.

Doktrinaren iritzi orokorra da Oinarrizko Eskubideak ez direla absolutuak; Oinarrizko Eskubide guztiak mugatuta daudelako. DE MIGUEL BÁRCENA autoreak⁴⁵ alde batetik, Oinarrizko Eskubideen barne mugak eta bestetik, kanpoko mugak bereizten ditu.

Barne mugak, Oinarrizko Eskubidearen izaeratik, edukitik eta helburutik eratortzen direnak dira. Informazio askatasunaren eskubidearekin hala gertatzen da, Konstituzioak espresuki aitortzen baitu egiazko informazioa komunikatzeko eskubidea, baina aldi berean, ez du gertakarien garrantzi publikoari buruzko, edota tartean dagoen pertsonaren izaera pribatu edo publikoari buruzko ezer aipatzen.

Kanpoko mugak berriz, ondasun eta interes indibidual edo kolektiboek osatzen dituzte. Hauek Oinarrizko Eskubideekin gatazkan sar daitezke, eta gertatzekotan, Oinarrizko Eskubideak kaltetu ditzakete. Horrenbestez, muga hauek, Oinarrizko

⁴⁵ GAVARA DE CARA, J.C; DE MIGUEL BÁRCENA, J. (2015: 66. Or.).

Eskubideen eta izaera konstituzionaleko ondasun juridikoen arteko bizikidetzeta eta baterako existentzia antolatzea dute helburu.

Askotan, Espainiako Konstituzioak 18.1 artikuluan jasotzen dituen nortasunaren eskubideak, batzuetan, lege bereko 20.1.d) artikuluan arautzen den informazio askerako eskubidearekin egiten dute talka. Artikulu honek dioenez, edozein hedabidetatik libreki egiazko informazioa komunikatu edo jasotzeko eskubidea dago.

Auzitegi Gorenak honen inguruan hurrengo adierazi du⁴⁶, Espainiako Konstituzioaren 20.1.a) eta d) artikulua, EKren 53.2 artikuluaekin lotuta, bereziki babestutako Oinarrizko Eskubidetzat aitortzen duela pentsamenduak, ideiak eta iritziak askatasunez adierazteko eta zabaltzeko eskubidea, hitzaren, idatzien edo beste edozein erreproduzio-bideren bidez, eta edozein hedabideren bitartez egiazko informazioa askatasunez komunikatzeko edo jasotzeko eskubidea.

Aurrekoarekin bat etorriz, adingabeei buruzko datuei eman beharreko babes berezia Adingabeen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoan jasotzen da. Informazio askatasunaren barruan sartzen da datu objektiboekin kontrastatu daitezkeen egitateak komunikatzea, kolektibitateko kideak eta kazetaritzako profesionalak titular gisa izanda.

Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea adierazpen edo informazio askatasun eskubideagatik mugatzea, eskubide hauen arteko gatazka dagoenean gertatzen da. Eta, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, konstituzio haztapen teknikak erabili beharko dira Auzitegi Gorenak adierazten duen bezala⁴⁷, gatazka horretan lehentasuna duen eskubidea zein den ebatzi ahal izateko.

Haztapena, Auzitegi Gorenak azaltzen duenez⁴⁸, eskubideen arteko talka bat dagoela egiaztatu ondoren, eskubideetako bakoitzari kalteak eragiten dion intentsitatea eta garrantzia aztertzea da. Orduan, horren arabera, eskubide bati edo besteari lehentasuna ematen dion erregela bat sortuko da kasua ebatzi ahal izateko.

Informazio eskubiderako kasuan, haztapen teknika, lehendabizi, gatazkan dauden oinarrizko eskubideak aztertzea da, bigarrenik, eskubide hauen garrantzia baloratzea

⁴⁶ AGE 2013-02-18 (Roj:STS 443/2013), (3. OJ).

⁴⁷ AGE 2013-02-18 (Roj:STS 443/2013), (3. OJ).

⁴⁸ AGE 2013-02-18 (Roj:STS 443/2013), (3. OJ).

(haztapenean kontutan hartu beharko da informazioak garrantzia publikoa edo interes orokorra duen, edo jakin-mina asetzeko helburu soila duen).

Pertsona pribatuen kasuan, ezezaguna denean eta gai publikoekin lotuta ez dagoenean, ez da gizartearentzako interesik egongo, eta beraz, babes konstituzional osoa eman beharko zaio informazio askatasunak sortu dizkion kalteen aurrean. Hala ere, honek ez du esan nahi pertsona baten izaera publikoak haren intimitaterako eskubidea ezabatzen duenik.

Informazio eskubideak ohorerako eskubidearen aurrean lehentasuna izateko, egiazkotasun baldintza bete beharko du, Auzitegi Gorenaren aburuz⁴⁹. Hau da, informatzaileak bete beharreko diligenziak betetzen dituenean, informaziorako eskubidea ohorerako eskubidearen aurrean lehentasuna izango luke. Baina, intimitaterako eskubidearen eta norberaren irudirako eskubidearen kasuan, baldintza honek ez du hainbesteko garrantzirik.

Ohorerako eskubidea eta informazio askerako eskubidea talka egiten dutenean, esku sartze ez-zilegia dagoen edo ez, 1/1982 Lege Organikoko 7.7 artikulua⁵⁰ bitartez zehaztuko da. Honen arabera, informazio eskubidea gauzatzean, pertsona jakin baten duintasuna kaltetzen denean, haren ospe ona kaltetzen duenean, esku-sartze ez-zilegia egongo da. Hau gertatuko da informazioak interes publikorik ez duenean, gaiari dagokionez. Eta aipatzen diren pertsonen dagokienez, informazioak egiazkotasun betekizunik ez duenean.

Informazio eskubideak irudiaren eskubidearen aurrean duen lehentasuna, intimitatearen aurrean duena baino adierazgarriagoa da. Halaber, pertsonaren bizitza pribatuari dagokionez, proportzionaltasun-printzipioa, interes publikoa, informazioa zabaldutako alderdiak eta hedapena egiteko modua hartu behar dira kontuan.⁵¹

⁴⁹ AGE 2013-02-18 (Roj:STS 443/2013), (3. OJ): *“por la que se entiende el resultado de una razonable diligencia por parte del informador para contrastar la noticia de acuerdo con pautas profesionales”*.

⁵⁰ 1/1982 LO (7.7. art): *“La imputación de hechos o la manifestación de juicios de valor a través de acciones o expresiones que de cualquier modo lesionen la dignidad de otra persona, menoscabando su fama o atentando contra su propia estimación”*.

⁵¹ AGE 2013-02-18 (Roj:STS 443/2013), (3. OJ): *“debe tenerse en cuenta el principio de proporcionalidad con el interés público en los aspectos de esta que se difunden y la forma en que tiene lugar la difusión”*.

Baliteke komunikazio ekintza batean, ohorea eta intimitatea batera kaltetzea 1/1982 Lege Organikoko 7.3 artikulua arautzen duen moduan⁵². Gerta daiteke ere ohorea eta irudia batera urratzea, irudi bat publikatzen denean, legeak arautzen duena urratuz, edota irudian agertzen den pertsonaren baimenik gabe, duintasunaren urrapen bat gertatzen denean.

Ohorerako eskubidearen kasuan, informazioa eskuratzeko erak ez du zehaztuko esku sartzea legezkoa edo legez kontrakoa den (intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideekin gertatzen den moduan), eskubide honek babesten duen objektua ez delako titularraren baimenaren arabera, GAVARA DE CARA autoreak azaltzen duen moduan⁵³.

Norberaren irudirako eskubidearekin gertatzen dena da titularrak eskubidea duela bere ezaugarri fisiko pertsonalek sortutako informazioa, eta zabalkunde publikoa izan dezakeen informazio grafikoa zehazteko. 1/1982 7.5 artikulua⁵⁴ arautzen duenez, pertsona baten irudia hartzea, erreproduzitzea edo argitaratzea, argazki, filma edo beste edozein prozeduraren bidez, bere bizitza pribatuko leku edo uneetan edo horietatik kanpo, 8.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik norberaren irudirako eskubidean esku-sartze ez-zilegia dagoela kontsideratuko dela.

8.2 artikuluan jasotzen dena da, hain zuzen ere, norberaren irudirako eskubideak ez duela eragotziko:

- Kargu publiko bat edo ospe edo proiektzio publikoko lanbide bat betetzen duten pertsonak direnean eta irudia ekitaldi publiko batean edo jendearentzat zabalik dauden lekuetan hartzen denean, edozein bitartekoren bidez jaso, erreproduzitu edo argitaratzea.
- Pertsona horien karikatura erabiltzea, erabilera sozialaren arabera.
- Gertakari publiko bati buruzko informazio grafikoa, pertsona jakin baten irudia osagarri soil gisa agertzen denean.

⁵² 1/1982 LO (7.3 art): *“La divulgación de hechos relativos a la vida privada de una persona o familia que afecten a su reputación y buen nombre, así como la revelación o publicación del contenido de cartas, memorias u otros escritos personales de carácter íntimo”*.

⁵³ GAVARA DE CARA, J.C. (2015: 88-89 orr.): *“el objeto que protege este último no depende de la autorización del sujeto afectado en su derecho a la personalidad”*.

⁵⁴ 1/1982 LO (7.5 art): *“La captación, reproducción o publicación por fotografía, filme o cualquier otro procedimiento, de la imagen de una persona en lugares o momentos de su vida privada o fuera de ellos, salvo los casos previstos en el artículo 8.2”*.

- a) eta b) lerrokadetan jasotako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko beren izaeragatik eginkizunak betetzen dituen pertsonaren anonimotasuna behar duten agintariei edo pertsonari.

Gatazkan dauden eskubideen arteko haztapena egiteko, kontuan hartu behar da bizitza pribatuko datuen argitalpena gizarte-usadioek justifikatzen duten ala kaltetuak bere eremu intimoarekin lotutako jokabideak hartu zituen, bere egintzekin izaera pribatua edo intimoa erabat edo partzialki urratu ziola ulertu ahal izateko.

Arrazoi horrengatik, esku sartzeen zilegitasuna zehazteko beste irizpide bat, kaltetutako pertsonaren aurretiazko jokabidea da. CARRIÓN OLMOS autorek dioten bezala⁵⁵, intimitaterako eskubidean esku-sartzeak zilegiak edo ez-zilegiak izan diren zehazteko; konparazio judizio bat egin beharko da subjektuak berak ezagutarazten duenaren eta gerora hirugarrenek ezagutarazten dutenaren artean, hauek antzekotasun maila garrantzitsua izan beharko dutelako.

III. ADINGABEEN OHORE, INTIMITATE ETA NORBERAREN IRUDIRAKO ESKUBIDEAK SARE SOZIALETAN

3.1 Adingabeen jarduteko gaitasuna

Barne zuzenbidean, Espainiako Konstituzioak pertsonaren duintasuna eta nortasunaren garapen askea jasotzen ditu (EK 10. art.), eta honekin batera, Estatuak herritarren Oinarrizko Eskubide eta Askatasun hauek sustatzeko eta bermatzeko betebeharrak baita adingabeenak ere (EK 9.2. art.).

Era berean, berdintasunaren Oinarrizko Eskubidearen babesean (EK 14. art.) eta Espainiako Konstituzioaren 39. artikulua araberan, adingabearen eskubideak zaintzen dituzten nazioarteko akordioekin bat etorriz; botere publikoek, familiaren babes sozial, ekonomiko, eta juridikoa ziurtatzeko betebeharra dute, bereziki adingabeena. Horrekin, Espainiako Konstituzioak maila konstituzionala ematen dio ez bakarrik gurasoek seme-alaben arretan eta hezkuntzan duten lehen mailako erantzukizunari, baizik eta, botere publikoek adingabeari dagokionez adierazitako printzipioak betetzeko betebeharrari ere.

⁵⁵ CARRIÓN OLMOS, S. (2007: 117 or.).

Adingabeen eskubideen erabilerari dagokionez, 1/1996 Lege Organikoak aurrerapen handia ekarri du. Hain zuzen ere, 1/1996 Lege Organikoaren hitzaurrean jasotzen da⁵⁶ ordenamendu juridikoan, eta bereziki lege honetan, adingabeak subjektu aktibo, parte-hartzaile eta sortzaile gisa ulertzeko modua islatzen dela, haien ingurune pertsonal eta soziala aldatzeko gaitasunari, eta euren beharrak bilatzen eta asetzen, eta gainerako beharrak asetzean, haien parte hartzeko gaitasunari dagokionez. Izan ere, 1/1996 Legeak dioenez, haurren babesa sozialki eta juridikoki bermatzeko modurik eraginkorrena, haien autonomia sustatzea da, pixkanaka euren egoera pertsonala, eta etorkizuneko proiektioari buruzko kontrola eraikitzeke gai izateko.

Arau honen helburu nagusia adingabeek Estatuko lurralde osoan babes bateratua bermatzea da, eta horrez gain, adingabearen estatus juridiko berezi bat aitortzen da. Hau da, alde batetik adin txikikoa izateagatik babes berezi bat aitortzen zaio, baina bestetik, haren nortasunaren garapenerako eskubideen titular bezala, autonomia juridikoa duen subjektu gisa aurrezagutzen da.

Honako hau kontutan hartuz, badirudi adingabearen eskubideei buruzko gatazka ez dagoela eskubide horien titulartasunean, argi baitago ohore, intimitate eta norberaren irudiaren eskubideen titularra adingabea bera dela, pertsona izateagatik dagozkion eskubideak direlako.

Hau horrela izanik, gatazka eskubide horien jarduteko gaitasunean dagoela esan daiteke, ez baitago argi zein den adingabeak eskubide hauek jarduteko gaitasunaren muga, eta bestetik, zeintzuk diren gurasoek guraso-ahala baliatuz, adingabeen bizitza pribatuari buruz har ditzaketan erabakien muga.

⁵⁶ 1/1996 LO, (Hitzaurrea): *“El ordenamiento jurídico, y esta Ley en particular, va reflejando progresivamente una concepción de las personas menores de edad como sujetos activos, participativos y creativos, con capacidad de modificar su propio medio personal y social; de participar en la búsqueda y satisfacción de sus necesidades y en la satisfacción de las necesidades de los demás El conocimiento científico actual nos permite concluir que no existe una diferencia tajante entre las necesidades de protección y las necesidades relacionadas con la autonomía del sujeto, sino que la mejor forma de garantizar social y jurídicamente la protección a la infancia es promover su autonomía como sujetos. De esta manera podrán ir construyendo progresivamente una percepción de control acerca de su situación personal y de su proyección de futuro”*.

Adingabeen jarduteko gaitasunari dagokionez, Espainiar estatuan jarduteko gaitasun osoa adin nagusitasunarekin eskuratzen da, hain zuzen ere, 18 urterekin; Espainiako Konstituzioak, Kode Zibilak, eta 1989ko haurraren eskubideen⁵⁷ arautzen duten bezala.

Estatu eremuan, Espainiako Konstituzioaren 12. artikularekin bat etorritz⁵⁸, Kode Zibilaren 315. artikulua⁵⁹ ezartzen du adin-nagusitasuna 18 urte betetzean hasten dela, adingabea emantzipatua denean izan ezik. Kasu horretan, Kode Zibilean egoera horretarako adierazitako berezitasunak aplikatuko zaizkio.

Beraz, honen arabera, Espainian, 18 urtetik beherako guztiak adin txikikoak dira, eta ez dute jarduteko gaitasun osoa.

Pertsona batek 18 urte betetzean eskuratzen duen adin nagusitasunarekin batera, jarduteko gaitasun osoa eskuratzen du ere bai. Honek esan nahi du, pertsonak dituen eskubide eta obligazioen titulartasunari, gaitasun juridikoari, jarduteko gaitasuna gehitzen zaiola. Adin txikikoen kasuan berriz, egoera ez da berdina. Hain zuzen ere, Kode Zibileko 154. Artikuluan adierazten den moduan⁶⁰, emantzipatuak ez dauden seme-alabak gurasoen guraso-ahalaren menpe egongo dira, eta hauen ordezkapena beharko dute haien eskubideak egikaritzeko orduan; hala baieztatzen du Auzitegi Gorenak⁶¹. Hala ere guraso edo tutoreek beti adin txikikoaren interes gorena bermatuz jokatu beharko dute.

Interes gorenari dagokionez, zehaztugabeko kontzeptu juridikoa da; eta edukia kasuz-kasu ematen zaio⁶², nahiz eta honen edukia osatzen laguntzen duten arau batzuk

⁵⁷1989ko Haurraren Eskubideen Hitzarmena, (1. Art): *“Para los efectos de la presente Convención, se entiende por niño todo ser humano menor de dieciocho años de edad, salvo que, en virtud de la ley que le sea aplicable, haya alcanzado antes la mayoría de edad”*.

⁵⁸ EK (12. Art): *“Los españoles son mayores de edad a los dieciocho años”*.

⁵⁹ KZ (315 art.): *“La mayor edad empieza a los dieciocho años cumplidos. Para el cómputo de los años de la mayoría de edad se incluirá completo el día del nacimiento.”*

⁶⁰ KZ (154 art.): *“Los hijos no emancipados están bajo la patria potestad de los progenitores.*

La patria potestad, como responsabilidad parental, se ejercerá siempre en interés de los hijos, de acuerdo con su personalidad, y con respeto a sus derechos, su integridad física y mental.

Esta función comprende los siguientes deberes y facultades:

1.º Velar por ellos, tenerlos en su compañía, alimentarlos, educarlos y procurarles una formación integral.

2.º Representarlos y administrar sus bienes.

Si los hijos tuvieren suficiente madurez deberán ser oídos siempre antes de adoptar decisiones que les afecten.

Los progenitores podrán, en el ejercicio de su función, recabar el auxilio de la autoridad”.

⁶¹ AGE 2009-09-08 (Roj:STS 583/2009), (2. OJ). *“El artículo 6 de la Ley de Enjuiciamiento Civil en su apartado 1º reconoce la capacidad para ser parte a las personas físicas y el artículo 7.2 añade que si no están en el pleno ejercicio de sus derechos civiles, que es el caso del menor de edad, habrá de comparecer mediante su representación legal”*.

⁶² 8/2015 LO, (Hitzaurreko II atala): *“la determinación del interés superior del menor en cada caso debe basarse en una serie de criterios aceptados y valores universalmente reconocidos por el legislador que deben ser tenidos en*

egon; adibidez, 2015eko uztailaren 22ko, Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Babeserako Sistemaren Aldaketarako 8/2015 Lege Organikoa.

8/2015 Lege Organikoa, bigarren artikuluan jasotzen ditu adingabearen interes gorena zehazteko irizpideak. Honekin batera, adingabearen interes gorena beste edozein interes zilegiren aurrean lehentasuna izan beharko du, 1/1996 Lege Organikoaren, eta 8/2015 Lege Organikoaren 2.4 artikulua arabera, BERCOVITZ RODRIGUEZ-CANO, R. autoreak adierazten duen moduan⁶³.

Kode Zibilak salbuespen bat aurreikusten du 162.1 Artikuluan. Artikulu honek dioenez, seme-alabak bere heldutasunaren arabera, bere kabuz egikari ditzakeen nortasun eskubideei buruzko egintzen kasuan; hau da, adingabearen egintzak nortasunaren eskubideekin harremana duten kasuetan, adingabea nahikoa heldua baldin bada, ez du eremu horretan guraso edo tutoreen ordezkapenik beharko. Hala ere, gurasoek kasu horietan esku hartuko dute, zaintza eta laguntza betebeharretan, adingabea bere intimitaterako eskubidearen titularra izan arren, ez duelako adin nagusiko batek duen jarduteko gaitasuna⁶⁴.

1/1996 Lege Organikoa aurreikusten duenez⁶⁵, gaur egun adin txikikoa arlo juridikoan autonomia maila handiago batean kokatzen da bere jarduteko gaitasunari dagokionez, batez ere nortasunaren garapenaren eremuan. Adingabearen estatus berri bat aitortzearen ondoriozko esparru juridiko berri horren arabera, eskubide sorta zabala ematen zaio, bereziki adingabea administrazio publikoarekin edo guraso-ahalaren titularrekin ados ez dagoenean sor daitezkeen gatazken aurrean, VILA RAMOS, B. autoreak aipatzen duen moduan⁶⁶.

Hala ere, araudiak adingabearen eskubideen titulartasuna zehazten badu ere, kontuan izan beharko da eskubide horiek neurri handiagoan edo txikiagoan erabili ahal izango

cuenta y ponderados en función de diversos elementos y de las circunstancias del caso, y que deben explicitarse en la motivación de la decisión adoptada, a fin de conocer si ha sido correcta o no la aplicación del principio."

⁶³ BERCOVITZ RODRIGUEZ-CANO, R. (2019: 3 or.): "ese interés superior del mismo, que «deberá primar [...] sobre cualquier otro interés legítimo que pudiera concurrir» (art. 2.4 de la mencionada Ley Orgánica 1/1996)."

⁶⁴ KZ (162.1 art): "Los padres que ostenten la patria potestad tienen la representación legal de sus hijos menores no emancipados. Se exceptúan: 1.º Los actos relativos a los derechos de la personalidad que el hijo, de acuerdo con su madurez, pueda ejercitar por sí mismo. No obstante, los responsables parentales intervendrán en estos casos en virtud de sus deberes de cuidado y asistencia".

⁶⁵ 1/1996 LO, (Hitzaurrea): "la mejor forma de garantizar social y jurídicamente la protección a la infancia es promover su autonomía como sujetos".

⁶⁶ VILA RAMOS, B. (2018: 1334. Or.).

dituela haren heldutasun-mailaren arabera. Ezin baita ukatu adingabeak bere adinaren eta heldutasun mailarekin garatzen doan jarduteko gaitasun progresiboa duela.

Gaitasuna, gizabanakoak erabaki autonomo bat hartzerako orduan, erabakiaren arriskuak, onurak eta aukerak ulertuz, askatasunez arrazoitzeko eta erabakia hartzeko ahalmena da, MARTINEZ URIONABARRENETXEA, K. autorearekin ados⁶⁷. Horregatik, VILA RAMOS, B.ek azaltzen duen moduan⁶⁸, jarduteko gaitasun naturala funtsezkoa izango litzateke adingabeari bere gaitasun naturalarekin bat datorren jarduteko gaitasuna; hau da, gaitasun juridikoa emateko. Hain zuzen ere, adingabearen interes gorena bermatzeko irizpideak neurtu egingo dira adingabearen adina eta heldutasunaren arabera⁶⁹.

Heldutasunari dagokionez, ezin da adin baten arabera zehaztu, heldutasuna era progresibo batean eskuratzen delako, eta bereziki, pertsona bakoitzaren arabera, luzeagoa edo motzagoa izan daitekeen prozesu ezberdina delako. Araudiak ez du ezartzen heldutasun-maila zehazteko irizpide orokorrik. Baina egia da legediak adingabeen artean, bi adingabe mota aurreikusten dituela; alde batetik 12 urtetik beherakoak eta bestetik, 12 urtetik gorakoak. Izan ere, haurrak 12 urte betetzen dituenean, eta egoera ulertzeko eta bere iritzia propioa izateko gai denean, entzunda izateko eskubidea izango du, legalki.

8/2015 Lege Organikoan jasotzen denez⁷⁰, heldutasuna zehaztuko da profesional espezializatuen bitartez, adin txikikoaren garapen ebolutiboa eta egoera ulertzeko gaitasuna kontutan hartuta.

Hala ere, adingabe baten datuen tratamenduaren kasuan, egoera ezberdina da. Esaterako, adingabearen adostasuna beharko da 14 urte beteak badin baditu; datu pertsonalen babeserako, eta eskubide digitalen bermeari buruzko 3/2018 Lege Organikoak arautzen duen bezala. Hala ere, nahiz eta 14 urte baino gehiagoko adingabeak bere adostasuna eman, datu pribatuen erabilera hau bakarrik izango da

⁶⁷ MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA, K. (2007: 32 or.) *“la aptitud del individuo de entender lo suficiente como para tomar una decisión autónoma, entendiendo los riesgos, beneficios y alternativas cuando se consideran varias posibilidades; razonar racional y lógicamente; decidir razonablemente; y hacerlo sin coerción, libremente”*.

⁶⁸ VILA RAMOS, B. (2018: 1335 or.).

⁶⁹ 1/1996 LO (2.3.a, eta, 2.2 artikulua).

⁷⁰ 8/2015 LO (9.2 Art): *“Se garantizará que el menor, cuando tenga suficiente madurez, pueda ejercitar este derecho por sí mismo o a través de la persona que designe para que le represente. La madurez habrá de valorarse por personal especializado, teniendo en cuenta tanto el desarrollo evolutivo del menor como su capacidad para comprender y evaluar el asunto concreto a tratar en cada caso. Se considera, en todo caso, que tiene suficiente madurez cuando tenga doce años cumplidos.”*.

legezkoa, adingabearen baimenaz gain, gurasoen adostasuna dagoenean, artikulua berdina azaltzen duen moduan⁷¹.

3.2 Internet eta Sare Sozialen egoera

Sare sozialak, Internet bidez erabiltzen diren *online* plataformak dira, eta bertan erregistratuta dauden erabiltzaileek mezuak, informazioa, irudiak edo bideoak partekatzeko erabiltzen dira.

2007 urtean *Tuenti* sare soziala⁷² Espainiara iritsi zenetik eta arrakasta handia sortu zuenetik, sare sozialek hazkunde izugarria izan dute gure gizartean (2008 urtean espainiarren %44,6ak erabiltzen zituen sare sozialak, Espainiako Datuen Babesaren Agentzia eta Komunikazio Teknologien Institutu Nazionalaren arabera⁷³). Hain handia izan da sare sozialek gizartean sortu duten aldaketa, esan daitekeela pertsonen arteko harremanak egiteko eta mantentzeko era aldatu dutela. Are gehiago, sarean bizitza paralelo bat sortu dela esan daiteke, bertan bizitza pribatuari buruzko informazio ugari partekatzen baita, norbanakoaren intimitatea erakusteraino.

Sare sozialetan zehar ezaugarri ezberdinetako erabiltzaileak daude; kultura, adin, nazionalitate, sexu, genero etab ezberdina dutenak. Adierazgarria da gainera, sare sozialen erabiltzaileen ehuneko handi bat adingabeak izatea. Baina ez da harritzekoa, ukaezina baita gaur egungo adingabeek Teknologia Berrien erabilera, adin nagusiko askok baino hobeto kontrolatzen dutela; izan ere, txikitatik ezagutu dituzten komunikabideak dira sare sozialak, eta euren egunerokotasunaren parte bihurtu egin dira, haien gurasoen erabileraren ondorioz, zeharkako modu batean baldin bada ere.

Belaunaldi berriak teknologia berriekin batera jaio, eta txikitatik ezagutu eta erabili izan dituzte trebezia handiarekin. Gainera, sare sozialak erabiltzeko adina geroz eta

⁷¹ 3/2018 LO (7. Art.): “El tratamiento de los datos personales de un menor de edad únicamente podrá fundarse en su consentimiento cuando sea mayor de catorce años (...) El tratamiento de los datos de los menores de catorce años, fundado en el consentimiento, solo será lícito si consta el del titular de la patria potestad o tutela, con el alcance que determinen los titulares de la patria potestad o tutela”.

⁷² CAZURRO BARAHONA, V. (zuz); LORENTE LÓPEZ, C eta FAYOS GARDÓ, A. (koord.) (2017: 251. Or.): “Tuenti Technologies, S.L.U. es una empresa propiedad de Telefónica (...) Fue creada en 2006 como red social, y en los años 2008-2009 llegó a contar con más de 15 millones de usuarios registrados, siendo la más popular entre usuarios adolescentes”.

⁷³ Espainiako Datuen Babesaren Agentzia, eta Komunikazio Teknologien Institutu Nazionala (2009: 41. Or.).

baxuagoa da, “*Net Children Go Mobile*” proiektuak adierazten duen moduan⁷⁴; 2016ean, azken proiektua sortu zenean, batez besteko adina 7 urteetan zegoen.

Horregatik, sarearen berehalakotasuna eta osotasuna dela eta, eremu honetan adingabeak babes maila indartuago bat merezi du, eskubide hauetan egon daitezkeen esku-sartze ez-zilegien aurrean, esparru birtualean informazioak izan dezakeen zabalkuntza, eremu sozialean izan dezakeena baino askoz azkarragoa baita; eta honek COLAS ESCANDÓN, A.M^aak azaltzen duenez⁷⁵, adingabearen biografia digitalean zein etorkizuneko ospe onean eragin kaltegarriak izan ditzake, haren nortasunaren garapen askea kaltetuz.

Beraz, adingabeek azken urteetan zehar, nahiz eta jarduteko gaitasun mugatua izan, ahalmen handiagoa eskuratu duten arren, honek ez du esan nahi Informazio eta Komunikazioaren Teknologien arloan babes berezirik behar ez dutenik. Bereziki adingabeek, arrisku ugari jasan ditzakete sare sozialen eremuan; haien artean, euren ohore, intimitate eta irudirako eskubideetan esku-sartze ez-zilegiak jasateko arriskua.

3.2.1 Adingabeen ohore, intimitate eta irudi eskubideek interneten jasan ditzaketen esku-sartze ez-zilegiak.

Interneten, datuak azkartasun eta erraztasun handiz partekatzen dira, eta izugarriko zabalera hartzen dute. Hain da zabala datu hauen irismena, datu horien titularrak ezagutzen ez duten pertsonak, horiek ezagutzeko aukera izan dezaketela, eta ondorioz, pertsonaren izaera ezagutu, bai fisikoki, bai psikologikoki.

Datu hauek adin nagusi batek borondatez interneten zabaltzen dituenean, betiere, norberaren datu pribatuak direnean, aukera izango du partekatu nahi dituen datu pribatu zehatz horiek hautatzeko. Hala eta guztiz ere, nahiz eta adin nagusikoa izan eta berak aukeratu internetera igotako datu pribatuak, bere ohorean, intimitatean eta irudian esku sartze ez-zilegiak jasateko arriskuak ditu. Adingabeen kasuan berriz, egoera larriagoa

⁷⁴ GARMENDIA LARRAÑAGA, M.; JIMÉNEZ IGLESIAS, E.; CASADO, M.A.; MASCHERONI, G. (2016: Azkeneko Informea). Net Children Go Mobile proiektuaren helburua, Internet eta Teknologia berrien Europako adingabeen erabileraren inguruko esperientziak eta praktikak aztertzea da; “*La edad media de inicio en el acceso a internet aún está reduciéndose, ahora está alrededor de los 7 años. Sin embargo, la edad de inicio en el uso de internet varía por grupos de edad, ESE y, en menor grado, según el género. Los niños y niñas que ahora tienen 9 o 10 años por término medio empezaron a usar internet cuando tenían 7 años, mientras los y las adolescentes que tienen ahora 15 o 16 se iniciaron con 10 años.*”.

⁷⁵ COLÁS ESCANDÓN, A.M^a (2017: 2. Or.) “*en cuestión de segundos puede tener una difusión local e incluso mundial, repercutiendo de forma directa en su biografía digital*”.

da, izan ere, esku-sartze ez-zilegi horiek eragin ditzaketen kalte moralak, adingabearentzat kaltegarriagoak izango baitira, pertsona ahulagoak direlako eta haien nortasuna garatzeko bidean daudelako.

Horregatik, datu pribatu hauek adingabeenak direnean, ahulak diren heinean, honen aurrean babes indartua beharko dute, hurrengo puntuan aztertuko den bezala. Jasan ditzaketen esku sartze ez-zilegien ondorioz, haien garapen pertsonala urratu daitekeelako, eta adingabeen izaeran eta moralean eraginak sortu ditzakete, haien egunerokotasuna, zein etorkizuna kaltetuz.

Espainiako Konstituzioak 18. artikuluan jasotzen du; lehendabiziko atalean ohore, intimitate pertsonal eta familiarra, eta norberaren eskubideak bermatzen direla. Eta honekin batera, 18. artikuluko laugarren atalean⁷⁶, ohore, norberaren eta senitartekoen intimitatea, eta norberaren irudia babesteko, legeak informatikaren erabilera mugatuko duela jasotzen da; hala baieztatu zuen Konstituzio Auzitegiak⁷⁷. Beraz, Espainiako Konstituzioak aurreikusten du informatikaren bidez ohorea, intimitatea edota irudia urratu daitezkeela, eta horregatik, artikulua honen bidez babesten du.

Konstituzio Auzitegiaren arabera⁷⁸ Espainiako Konstituzioak, 18.4 artikulua erabiliz, beste eskubide batzuk bermatzeko helburua du, batez ere ohore eta intimitate eskubideak. Auzitegi Konstituzionalak adierazten duen moduan, intimitatearen bermeak ulermen positiboa du gaur egun, eta horrek pertsonari berari buruzko datuak kontrolatzeko eskubidea ematen dio.

Askatasun informatikoa, programa informatiko batean (*habeas data*) sartutako datu berberen erabilera kontrolatzeko eskubidea da, eta, besteak beste, herritarrak datu pertsonal jakin batzuk eskuratzea, zilegiak ez diren beste helburu batzuetarako erabiltzearen aurka egiten du Konstituzio Auzitegiak dioenez⁷⁹.

⁷⁶ EK (18.4 art): “La ley limitará el uso de la informática para garantizar el honor y la intimidad personal y familiar de los ciudadanos y el pleno ejercicio de sus derechos”.

⁷⁷ KAE 1998-01-13 (ECLI:ES:TC:1998:11), (5. OJ): “el art.18.4 en su último inciso establece las limitaciones al uso de la informática para garantizar el pleno ejercicio de los derechos, lo que significa que, en supuestos como el presente, el artículo citado es, por así decirlo, un derecho instrumental ordenado a la protección de otros derechos fundamentales” (...) “el art.18.4 C.E. Éste no sólo entraña un específico instrumento de protección de los derechos del ciudadano frente al uso torticero de la tecnología informática, como ha quedado dicho, sino que además, consagra un derecho fundamental autónomo a controlar el flujo de informaciones que conciernen a cada persona”.

⁷⁸ KAE 1993-07-20 (ECLI:ES:TC:1993:254).

⁷⁹ KAE 1998-05-04 (ECLI:ES:TC:1998:94), (4. OJ): “el art. 18.4 C.E., plasma como principio cardinal de la protección de datos la congruencia y la racionalidad de su utilización, en cuya virtud ha de mediar una nítida conexión entre la información personal que se recaba y trata informáticamente y el legítimo objetivo para el que se

Konstituzioaz gain, 1/1982 Lege Organikoak ere, Interneteko egoerarekin alderatu beharreko bi printzipio ezartzen ditu. Lehenik eta behin, 1. artikuluan dioenez, ohorearen, intimitatearen eta irudiaren babes zibila legeek eta gizarte-usadioek mugatuko dute, pertsona bakoitzak bere egintzengatik berarentzat edo bere familiarentzat erreserbatuta duen eremua kontuan hartuta.

Horrez gain, kasuaren harira, 3. Artikuluan, adingabeei buruzko irizpide bat finkatzen du, hain zuzen ere, heldutasun nahikoa duen adingabe batek bere ohoreari, intimitateari eta bere irudiari eragiten dion kasu guztietan baimena eman ahal izatea. Adingabeak baimena emateko gaitasun nahikorik ez duen kasuetan, arauak xedatzen du baimena bere legezko ordezkariak eman beharko duela era idatzian, eta ordezkari horrek, adostasuna aurrez Fiskaltzari jakinarazi beharko diola; ondoren, Fiskaltzak zortzi eguneko epean aurka egiten baldin bada, epaileak ebatziko du.

Kontutan hartu beharko da ere 1/1996 Lege Organikoko 4.3 artikulua, hain zuzen ere, Auzitegi Gorenak adierazten duenez⁸⁰, adingabearen babes indartua 1/1996 Lege Organikoan agertzen da, 4. Artikuluan esku-sartze ez-zilegiak arautzen baititu: Adingabearen ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidean modu ez-zilegian sartzea gertatuko da komunikabideetan haren irudia edo izena erabiltzean, baldin eta horren ondorioz haren ohorea edo ospea kaltetzen bada, edo haren interesen aurkakoa bada, adingabearen edo bere legezko ordezkarien adostasuna jasota egon arren.

Beraz, datu pribatuen titularrak (kasu honetan, adingabeak) ez diren hirugarren pertsonen, sarera igotako eta partekatutako edonolako informazioak adingabearen intimitate, irudi edo ohoreari kaltea eragin diezaiokie; haien interesen aurka doanean, edo haren ohorea edo ospea kaltetzen denean, Auzitegi Gorenak jasotzen duenez⁸¹.

solicita y, en consecuencia, prohíbe tajantemente el uso de los datos para finalidades distintas de las que motivaron su recogida (apartados 1 y 2 del art. 4)."

⁸⁰ AGE 2009-09-08 (Roj:STS 583/2009), (4. OJ): *"el menor tiene una protección reforzada, no ya distinta, en estos derechos fundamentales y así se deduce del artículo 4.3 de la Ley Orgánica 1/1996, 15 de enero, de protección jurídica del menor: Se considera intromisión ilegítima en el derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen del menor, cualquier utilización de su imagen o su nombre en los medios de comunicación que pueda implicar menoscabo de su honra o reputación, o que sea contraria a sus intereses incluso si consta el consentimiento del menor o de sus representantes legales."*

⁸¹ AGE 2009-09-08 (Roj:STS 583/2009), (5. OJ): *"en el caso presente es un menor y la protección del mismo es indiscutible: tal como dice el artículo 4.3 de la Ley de protección del menor, la utilización del nombre o imagen del menor en los medios de comunicación que pueda implicar menoscabo de su honra o reputación, implica intromisión ilegítima. E implica también una extralimitación de la libertad de información, con fundamento en las numerosas disposiciones de derecho interno (art. 10.2, 20.4 y 39.4 CE) e internacional (art. 14 del Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos de 19 de diciembre de 1.966, ratificado por España el 13 de abril de 1.977; art. 16 del*

Beraz, hau gertatzen denean, adingabeak bere intimitate, ohore, edo norberaren eskubideetan esku-sartze ez-zilegiak jasan dituela kontsideratuko da.

Honen aurrean, Datuen Babeserako Araudia garatu zen, askatasun publikoak eta pertsona fisikoen Oinarrizko Eskubideak; eta batez ere intimitatea, ohorea eta norberaren irudiaren eskubideak babesteko helburuarekin. Beste hitzetan, Arau hauek (Datu Pertsonalen Babeserako, eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko 3/2018 Lege Organikoa; eta, Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2016/679 erregelamendua, pertsona fisikoen datu pertsonalen babeserako, eta datu pertsonalen zirkulazio askeari buruzkoa) norberaren intimitatean, ohorean eta irudian esku-sartze ez-zilegiak egotea ekidin nahi dute; hirugarrenen fede txarreko datuen erabilera, edo titularraren baimenik gabeko erabilera salbuetsiz.

3/2018 Lege Organikoa, adingabeek Interneten bidez oinarrizko eskubideetan jasan ditzaketen esku-sartze ez-zilegien aurrean izango duten babesa jasotzen du 84.2 artikuluan⁸². Bertan arautzen dena da, hain zuzen ere, adingabeen datu pribatuak Interneten zabaltzeagatik, adingabearen intimitatea, ohorea edota irudia urratzen denean, Ministeritza Fiskalak esku hartuko duela, 1/1996 Lege Organikoaren arabera zehaztuko diren kautela- eta babes- neurriak ezarriz.

3.2.2 Adingabeen babes indartua.

Auzitegi Gorenak dioenez⁸³, umeen ohore, intimitate edo irudia kaltetzen diren kasuetan, barne araudiak (1/1996 Lege Organikoko 4.3 artikulua) zein nazioarteko araudiak (1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 24. Artikulua, Giza Eskubideen, eta, Oinarrizko Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmeneko 6.

Convenio Europeo hecho en Roma el 4 de noviembre de 1.950 para la Protección de los Derechos Humanos y de las Libertades Fundamentales, ratificado por España el 26 de septiembre de 1.979 ; art. 8 de las Reglas mínimas de las Naciones Unidas para la administración de justicia de menores de 29 de noviembre de 1.985 -Reglas de Beijing-; y art. 40 de la Convención sobre los Derechos del Niño , adoptada por las Naciones Unidas en 20 de noviembre de 1.989 y ratificada por España por instrumento de 30 de noviembre de 1.990), y Sentencias del Tribunal Constitucional (SSTC 71/90 y 36/91), que exigen un especial amparo para los menores de edad. Así lo ha señalado la sentencia de esta Sala de 28 de junio de 2004, la del Tribunal Constitucional 121/2002 , de 20 de mayo y la del Tribunal europeo de derechos humanos de 16 de diciembre de 1999 . En definitiva, un menor no puede ser identificado de forma que produzca un menoscabo de su honra o reputación sin que ello signifique una intromisión ilegítima en su derecho al honor, o a la intimidad, o a la imagen. ”.

⁸² 3/2018 LO (84.2 Art): “La utilización o difusión de imágenes o información personal de menores en las redes sociales y servicios de la sociedad de la información equivalentes que puedan implicar una intromisión ilegítima en sus derechos fundamentales determinará la intervención del Ministerio Fiscal, que instará las medidas cautelares y de protección previstas en la Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor”.

⁸³ AGE 2013-02-18 (Roj:STS 443/2013), (3. OJ).

Artikulua, eta, 1989ko Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmenaren 3. eta 40. artikulua) adingabearen interes gorenari babes berezi bat ematen diotela. 1992ko Haurraren Eskubidei buruzko Europako Gutunak adierazten duen moduan⁸⁴, haur orok du bere irudiaren erabileraren ondorioz bere duintasunari kalte egitearen aurka babestua izateko eskubidea.

Izan ere, adingabeak haien nortasunaren garapen prozesuan dauden pertsonak dira, jarduteko gaitasun osoa ez dutenak, eta ahulagoak direnak. Horregatik araudiak haien bizitza pribatua babesteko helburuarekin, babes indartu bat aitortzen die adingabeei. Horrez gain, nahiz eta legediak adingabeen babes indartua arautzen duen, gurasoek ere adingabeen interes gorenean jarduteko beharra dute guraso-ahala egikaritzarako orduan, Espainiako Konstituzioak, gurasoek haien seme-alabari eman beharreko arreta jasotzen baitu. Bestalde, adingabeek Ministeritza Fiskalaren babesa izango dute beharrezko kasuetan, hurrengo puntuetan aztertuko den moduan.

a. Gurasoek seme-alaba adingabea babesteko betebeharra.

Gurasoek haien seme-alabekiko guraso-ahala dute, eta haien interes gorenean egikaritu behar dute. Hortaz, seme-alabak, adingabeak diren bitartean, gurasoen ordezkari izango dute. Hala ere, kontutan izan behar da adingabeak 12 urte betetzen dituenean edota 12 urte baino gutxiago izanda, bere iritzi propioa garatzeko, eta egoera ulertzeko gai den kasuetan, entzuteko eskubidea izango duela. Honek esan nahi du gurasoek adingabearen erabakiak eta iritziak kontutan izan beharko dituztela.

Kode Zibilak guraso-ahalari buruz 154. artikuluan jasotzen du seme-alaba emantzipatu gabeak, euren gurasoen ahalaren menpe daudela. Horrez gain, guraso-ahala beti egikaritu behar dela seme-alaben onurarako, euren nortasunarekin bat etorritz. Guraso-ahal horrek betebeharrak eta obligazio batzuk sortzen ditu; hauek izango dira, seme-alabak babestea, haiekin egotea edo izatea, mantenua ematea, seme-alabak heztea, eta, heziketa ematea. Horrez gain, seme-alabak ordezkatzeko eta euren ondasunak administratzeko, Kode Zibilak jasotzen duen moduan. Hala ere, gurasoek euren ahala egikaritzean, agintaritzaren laguntza izan edo eska dezakete.

⁸⁴ 1992ko Haurraren Eskubidei buruzko Europako Gutuna: "Todo niño tiene derecho a ser protegido contra la utilización de su imagen de forma lesiva para su dignidad".

Baina, Kode Zibilak azpimarratzen duenez, seme-alabek behar besteko zentzutasuna eta heldutasuna dutenean, haiengan eragina izan dezaketen erabakiak hartu aurretik, eurei entzun beharko zaie beti. Hain zuzen ere, gurasoek adingabearen eskubideen ordezkari diren bitartean, haren interesean jokatu beharko dute; hala zehazten du 1/1996 Lege Organikoak⁸⁵.

Artikulu honek jasotzen du ere beste supostu bat: gurasoek eta emantzipatu gabeko seme alabek interes ezberdinak izatearen ondorioz gatazka sortzearena. Kasu hauetan, 1/1996 Lege Organikoak adierazten duen moduan, eta, Kode zibilak 163. Artikuluan arautzen duen moduan Ministeritza Fiskalaren defentsa edo ordezkari izan ahalko du adin txikikoak. Kasu horretan, Kode Zibileko 163. Artikuluak dioenez, *“Gai zehatz baten inguruan, aita eta amaren interesa euren seme-alaba emantzipatu gabek dutenaren aurkakoa bada, epaileak seme-alaba horientzat defendatzailea izendatuko du, defendatzaile horrek epaiketan nahiz epaiketatik kanpo seme-alabok ordezkari ditzan. Era berean, epaileak izendapen hori egingo du, gurasoen betebeharra seme edo alaba adingabeko emantzipatuaren gaitasuna osatzea izanik, euren interesa seme edo alaba horrek izan dezakeenaren aurkakoa denean. Interes-gatazka guraso batekin bakarrik sortzen bada, lege-aginduz beste gurasoari dagokio adingabea ordezkari edo beraren gaitasuna osatzea, eta horretarako ez da izendapen berezirik behar”*. Auzitegi Gorenak hala adierazi zuen ere⁸⁶.

Kode Zibileko artikulu honek, gainera, adingabeak guraso batekin bakarrik gatazka izatearen supostua jasotzen du, kasu horretan beste gurasoak izango du seme-alaba ordezkatzeko obligazioa, izendapen berezirik gabe.

Espanian gai honi buruz egon diren gatazken artean nagusitu den gatazka da, gurasoak ados ez jartzearena. Pontevedrako Auzitegi Probintzialak halako kasu bati buruzko epai bat ebatzi zuen, lanaren hurrengo IV. atalean zehaztasun handiagoarekin aztertuko dena.

⁸⁵ 1/1996 LO (2.5.c. art.): *“La participación de progenitores, tutores o representantes legales del menor o de un defensor judicial si hubiera conflicto o discrepancia con ellos y del Ministerio Fiscal en el proceso en defensa de sus intereses”*.

⁸⁶ AGE 2015-06-30 (Roj:STS 2856/2015), (2. OJ): *“el caso de menores tiene como presupuesto el hecho de que siempre que no medie el consentimiento de los padres o representantes legales de los menores con la ausencia del Ministerio Fiscal, la difusión de cualquier imagen de éstos ha de ser reputada contraria al ordenamiento jurídico (SSTS de 19 de noviembre de 2008 ; 17 de diciembre 2013 ; 27 de enero 2014 , entre otras). Es en definitiva, es la propia norma la que objetiva el interés del menor y la que determina la consecuencia de su desatención”*.

Legeria zibilak jasotako heldutasun baldintzak betetzen ez dituzten adingabeen eta ezgaien kasuan, haien legezko ordezkariak eman beharko du adostasuna. Seme-alaba adingabeen kasuan, haien legezko ordezkariak bi gurasoek dute, guraso-ahalaren titular diren aldetik, Kode Zibileko 154. artikulua jasotzen duen moduan.

Gainera, Kode Zibilaren 156 artikulua arabera, bi gurasoek batera egikaritu beharko dute guraso-ahala, edo, batek bakarrik bestearen esanbidezko edo isilbidezko adostasunarekin. Hala ere, haien artean desadostasuna izanez gero, bietatik edozeinek jo dezake epailearengana; egoera honen aurrean, epailak entzungo die bi gurasoei eta seme edo alabari (heldutasun nahikoa baldin badu, edota 12 urte baino gehiago baditu). Horrez gain, desadostasunak etengabeak badira, edo guraso-ahalaren egikaritzak beste arrazoi batek modu larrian oztopatzen badu, epaileak guraso bakar bati egokitu diezaiokete guraso-ahalaren egikaritzak, osorik edo partzialki. Bestela, epaileak gurasoen artean bana ditzake guraso-ahalaren eginkizunak. Neurri horien iraupena epaileak berak zehaztuko du; hala ere, iraupen hori ezin da inoiz bi urtetik gorakoa izan. Gurasoak banandurik bizi badira, semearekin edo alabarekin bizi den gurasoak egikaritutako du guraso-ahala. Dena den, beste ezkontideak eskaera oinarriduna egiten badu, epaileak hari egokitu diezaiokete guraso-ahala, semearen edo alabaren intereserako, guraso horrek bestearekin batera ahal hori egikari dezan; edo, bestela, epaileak aitaren eta amaren artean bana ditzake guraso-ahalaren egikaritzari dagozkion eginkizunak.

Beraz, Kode Zibilaren 156. artikuluan oinarrituz, guraso batek seme edo alaba baten argazkiak sare sozialetan argitaratzeko interesa badu eta beste gurasoak aurka egiten badio, baimen judiziala eskatu beharko du. Eta alderantziz, guraso batek seme-alaba baten argazkiak argitaratzen baditu sare sozialetan bestearen baimenik gabe, baimenik eman ez duen gurasoak epaileari eska diezaiokete argazki horiek kentzea.

b. Ministeritza Fiskalaren parte hartzea adingabearen babesean.

1/1982 Lege Organikoak egiten ez duen bezala, Adingabeen Babeserako 8/2015 eta 1/1996 Lege Organikoek Ministeritza Fiskalaren parte hartzea jasotzen dute.

8/2015 Lege Organikoan, Ministeritza Fiskalaren parte hartzeari hurrengo kasuetan egiten zaio erreferentzia (9. artikuluan):

Adingabeak entzuna izateko duen eskubideari dagokionez, administrazio-bidean edo auzibidean adingabearen agerraldia edo entzunaldia ukatzen bada zuzenean, edo hura ordezkatzeko duen pertsonaren bidez, ebazpena adingabearen interes gorenaren arabera arrazoituko da, eta Fiskaltzari, adingabeari eta, hala badagokio, haren ordezkariari komunikatuko zaie.

Legezko defentsa eta laguntzailea izateko eskubideari dagokionez, Fiskaltzak adingabearen eskubideak defendatzeko jardun ahal izango du, bere eskubideak eta interesak babesteko eta defendatzeko beharrezkoak diren ekintza judizialak eta administratiboak abiarazteko.

Horrez gain, 1/1996 Lege Organikoan Ministeritza Fiskalaren parte hartzeari erreferentzia egiten zaio hurrengo kasuetan (4. artikuluan):

Adingabeen intimitatean, ohorean edo izen onean bidegabeko esku-sartzea ekar dezakeen edo haien interesen aurkakoa izan daitekeen informazioa zabaltzeak edo adingabeen irudiak edo izenak erabiltzeak, Ministerio Fiskalaren esku-hartzea ekarriko du. Fiskaltzak berehala eskatuko ditu Legean aurreikusitako kautela- eta babes-neurriak, eta horrekin batera, eragindako kalteen ondoriozko kalte-ordainak.

Horrez gain, Datuen Babesari buruzko 3/2018 Lege Organikoak (84. Artikuluan), Ministeritza Fiskalak, 1/1996 Lege Organikoaren arabera, kautela eta babes neurriak ezartzea aurreikusten du, Interneten informazio pribatua zabaltzearen ondorioz, adingabeen ohore, intimitate eta irudi eskubideetan esku-sartze ez-zilegia dagoen kasuetan. Hain zuzen ere, adingabearen legezko ordezkariak titular diren akzioak kaltetu gabe, Ministeritza Fiskalari dagokio horiek egikaritzea, eta ofizioz edo adingabeak berak edo edozein pertsona interesdunak (pertsona fisiko, juridiko edo erakunde publikoak) eskatuta jardun ahalko du.

2006ko martxoaren 15eko 2/2006 instrukzioa, Fiskaltzaren eta, adingabeen intimitatearen, irudiaren, eta ohorearen babesari buruzkoan, adierazten da espainiar ordenamendu juridikoak asko zaintzen eta babesten dituela intimitate, ohore eta irudirako eskubideak. Gainera, subjektu pasiboa adingabea den kasuetan, juridikotasunaren kontrako “plus” bat dagoela kontsideratzen da; izan ere, ohorea, intimitatea edo norberaren irudia kaltetzeaz gain, haren garapen fisiko, mental eta moral egokia kaltetu daitekeelako, eta, azken batean, nortasunaren garapen askerako eta

etorkizuneko gizarte-estimurako eskubidea lausotu⁸⁷ dezakeelako. Auzitegi Gorenak ere, 2/2006 Fiskaltzaren Instrukzioan jasotakoa baieztatzen du⁸⁸.

IV. GURASOEK SEME-ALABEN OHORE, INTIMITATE ETA IRUDIAN ESKU-SARTZE EZ-ZILEGIAK INTERNET BIDEZ BURUTZEN DITUZTEN KASUAK

Espainiar estatuari daogkionez, aztertutako kasu zehatzetako batean ere ez dela halakorik gertatu, Italian⁸⁹ eta beste estatuetan gertatu den bezala, seme edo alaba adingabeak gurasoak demandatzen dituen, bere intimitatean, ohorean edota irudian esku-sartze ez-zilegia burutu izanagatik. Espainiaren kasuan, gai honekin lotura duten kasu gatazkatsuenak gaur egun, guraso-ahalaren ingurukoak dira. Horregatik, guraso-ahala, eta sare sozialetan seme-alaben ohore, intimitate eta irudiaren babesari buruz, eta haren inguruan gertatzen diren gatazkei buruz azaltzen diren sententziak aztertuko dira atal honetan; batez ere guraso-ahalaren inguruan, esan bezala, Espainian gaur egun, gai honekin lotuta dagoen gai gatazkatsuenak baita.

Hala ere, beste herrialdeetan gertatu den bezala, Espainian ez da asko berandutuko adingabea den seme-alaba gurasoen aurka egitea, bere datu pribatuak sare sozialetara igotzeagatik. Izan ere, gurasoek haien seme-alaba adingabeen bizitza pribatuaren erakusketa publikoa geroz eta gehiago egiten dute sare sozialen bidez, eta portaera honek, haien intimitate, ohore edota irudi eskubidea urratu lezake, adingabearen izaeraren garapenari eta moralari eragin kaltegarriak sortuz.

⁸⁷ 2/2006 Instrukzioa (2016-03-15): Fiskaltzaren eta, adingabeen intimitatearen, irudiaren, eta ohorearen babesari buruzkoa, (3. Atala): *“Los derechos al honor, a la intimidad y a la propia imagen del menor se encuentran hiperprotegidos por nuestro ordenamiento jurídico. Estas garantías adicionales se justifican por el plus de antijuridicidad predicable de los ataques a estos derechos cuando el sujeto pasivo es un menor, pues no solamente lesionan el honor, la intimidad o la propia imagen, sino que además pueden perturbar su correcto desarrollo físico, mental y moral, y empañar en definitiva su derecho al libre desarrollo de la personalidad y a la futura estima social.”*

⁸⁸ AGE 2003-06-27 (Roj: STS 621/2003), (1. OJ): *“Se ha de proteger la propia intimidad de todas las personas, otorgando el amparo judicial cuando proceda, y con mayor razón si se trata de la infancia, siempre más desvalida y por ello más vulnerable y que goza del respaldo constitucional (artículo 39-4) e internacional (artículo 25-2 de la Declaración Universal de los Derechos Humanos, de 10 de diciembre de 1948, artículo 24 del Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos, hecho en Nueva York el 19 de diciembre de 1966, artículo 10-3 del Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales, de 19 de diciembre de 1966, Declaración de Derechos del Niño de 1959 y Convención sobre los Derechos del Niño de 1989).”*

⁸⁹ 2017-12-23 (R.G: 39913 /2015), *Ruolo Generale Civile* Italiar Auzitegiko epaia.

4.1 Pontevedrako Entzutegi Probintzialeko 1123/2015 epaia⁹⁰

Pontevedrako Auzitegi Probintzialak 2015. Urtean ebatzitako kasu honetan, dibortzioa eskatzen zuten bi gurasoen kasua aztertzen du.

Kasu honetan, amari eman zitzaion semearen zaintza betebeharra, eta aitari berriz, bisita erregimena eta elikagaiak. Amak, apelazio errekurso bidez eskatu egin zuen, beste gauza batzuen artean, adingabearen pribatutasuna bermatze eta babeste aldera, aitari bere semearen argazkiak eta irudiak sare sozialetan edo antzeko bitartekoetan argitaratzea debekatzea, bere aurretiazko baimenik gabe.

Aitak adingabearen argazkiak *Facebook* sare sozialean argitaratzearen arazoari dagokionez, honako hau azpimarratu zuen Entzutegi Probintzialak:

1) Norberaren irudirako eskubidea (Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua) nortasunaren eskubide bat da, eta haren titularrari esleitzen dio haren itxura fisikoaren irudikapena izateko ahalmena, eta haren identifikazioa ahalbidetzen dio.

2) Adingabearen irudikapen fotografikoa datu pertsonala dela.

Beraz, pertsona baten irudia (irudikapen fotografikoen bidez) erabiltzeko, haren baimena behar da⁹¹. Legeria zibilaren arabera, heldutasun-baldintzek horretarako aukerarik ematen ez duten adingabeen eta ezgaien kasuan, haien legezko ordezkariak eman beharko dute adostasuna⁹².

Seme-alaba adingabeen legezko ordezkariak bi gurasoek dute, guraso-ahalaren titular diren aldetik⁹³.

Gainera, guraso-ahala bi gurasoek batera baliatuko dute, edo batek bakarrik, bestearen esanbidezko edo isilbidezko adostasunarekin, eta baliozkoak izango dira bietako batek gauzatzen dituen egintzak, gizarte-usadioaren eta inguruabarren edo presako beharizan-egoeren arabera. Desadostasunik izanez gero, bietako edozeinek jo ahal izango du epailearengana; zeinak, biei eta semeari entzun ondoren (hamabi urtetik

⁹⁰ EPE Pontevedra 2015-06-04 (Roj:SAP PO 1123/2015).

⁹¹ 1/1982 LO (2. Art, eta, 3. art).

⁹² 1/1982 LO (3. Art).

⁹³ KZ (154. Art).

gorakoa bada), aitari edo amari emango die erabakitzeko ahalmena, Kode Zibilak adierazten duenez⁹⁴.

Epai honi dagokionez, xedapen hau aplikagarria litzateke, izan ere, nahiz eta gurasoak bananduta egon, biei dagokie guraso-ahalmena egikaritzea⁹⁵.

Pontevedrako Auzitegi Probintzialaren ebazpenari dagokionez, Entzutegi Probintzialaren azken erabakia, aitak semearen argazkiak *Facebook*era edota antzekoak diren plataforma digitaletan adingabearen argazkiak igo ahal izateko, adingabearen amaren baimenarekin izan beharko zuela izan zen.

Hau da, epai honenetatik ondorioztatu daiteke, Entzutegi Probintzialak emandako azken erabakiagatik, bi gurasoen baimena beharko dela, bi gurasoek guraso-ahala duten kasuetan, seme-alaba adingabearen irudiak edota informazioa sare sozialetara igotzeko.

4.2 Auzitegi Goreneko 2856/2015 epaia⁹⁶

Auzitegi Gorenak 2015. urtean emandako ebazpen honetan, Valladolideko Zientzia Museoak, eta Chiquiocio Cultural S.L.k, adingabe baten irudia argitaratu zuten haren gurasoen baimenik gabe. Argazki horiek egin zituena adingabearen osaba izan zen, baina honek argazkiak erabilera pribaturako eta partekatzekeko intentziorik gabe egin zituen.

Gurasoen eskaera izan zen adingabearen irudia zegoen edozein artxibo ezabatzea, eta argazki horien argitalpenik edo partekatzerik ez egitea; eta horrez gain, adingabeari kalte-ordain bat ematea.

Vigoko Lehen Instantziako Auzitegiak, argazkia ateratzeko baimena zegoela eta, publizitate helbururik ez zuela kontsideratuz, demanda hau ezeztatu zuen. Horregatik, adingabearen amak Pontevedrako Auzitegi Probintzialesan tarteratu egin zuen apelazio errekurtsua, eta Auzitegi honek ere, errekurtsua ezeztatu egin zuen, azalduz, semearen ospe, erreputazio eta ohorea ez zela argazki horren bidez kaltetzen.⁹⁷

⁹⁴ KZ (156. Art).

⁹⁵ EPE Pontevedra 2015-06-04 (Roj:SAP PO 1123/2015), (4. OJ.).

⁹⁶ AGE 2015-06-30 (Roj:STS 2856/2015).

⁹⁷ AGE 2015-06-30 (Roj:STS 2856/2015), (1. OJ.).

Beraz, demandanteak Auzitegi Gorenaren aurrean, Kasazio errekurtsua tarteratu egin zuen, adingabearen ohore, intimitate eta irudi eskubideetan, esku-sartze ez-zilegia egon zela alegatuz. Auzitegiak honen aurrean hurrengoa adierazi zuen:

- 1) Argazkiak ez du interes orokorrik eta beraz, adingabearen intimitate, ohore eta irudirako eskubideak lehentasuna daukate informazio eskubidearen aurrean.
- 2) Norberaren Irudirako eskubidean modu ez-zilegian sartzea gertatzen dela kontsideratzen du Auzitegiak, 1/1996 Lege Organikoaren 4. artikulua arabera, adingabearen irudia aldizkari batean sartzeagatik, haren argitalpenak lortu nahi dituen helburuak alde batera utzita, kaltetuaren izen onari eragin diezaiokeen edo ez kontuan hartu gabe, beste oinarrizko eskubide batzuk urratu ahalko liriateke; hala nola, ohorea eta intimitate pertsonala. Gainera, kasu honetan, nahiz eta argazkia ateratzen duena adingabearen osaba izan, horrek ez du esan nahi gurasoen baimena dagoenik argazki hori zabaltzeko eta argitaratzeko, eta adingabearen ordezkari legalen baimena ez dagoen guztietan, ordenamendu juridikoaren kontrakoa kontsideratu ahalko da, Auzitegiak adierazten duen moduan⁹⁸.

Auzitegi Gorenaren azkeneko erabakia izan zen, errekurtsua onartzea, eta demandatuak kaltetuari jasandako kalteen ondoriozko indemnizazio bat ordaintzera behartzea.

4.3 **Bartzelonako Entzutegi Probintzialeko 4328/2018 epaia**⁹⁹

Bartzelonako Entzutegi Probintzialak, 2018. Urtean ebatzitako kasu honetan, ezkontzaz kanpoko seme alaba bat duen bikotearen kasua aztertzen da. Amak semearen zaintza betebeharra du, eta aitak, bisita erregimena eta elikagaiak emateko betebeharra. Guraso-ahala bi gurasoen artean egikaritzen dute.

Aitak, beste gaien artean, ebazpen honetan errekurritzen du semearen argazkiak sare sozialetan argitaratzea debekatuta ez egotea, bi gurasoak ados dauden kasuetan izan ezik. Auzitegiak gatazka honi buruz hurrengoa adierazten du:

⁹⁸ AGE 2015-06-30 (Roj:STS 2856/2015), (2. OJ).

⁹⁹ EPE Bartzelona 2018-05-15 (Roj: SAP B 4328/2018).

Adingabearen irudi-eskubidea bi gurasoek baliatzen duten guraso-ahalaren eremuko da. Beraz, biek dute eskubidea, eta biek zaindu behar dute semearen eskubidea behar bezala babesten dela. Honen aurrean, batak zein besteak sare sozial horietara sartzean, neurri egokiak hartu beharko dituzte adingabearen pribatutasuna mugatzeko: seme-alabaren irudiak, haiek nahi duten pertsonak bakarrik jaso ditzaketela adierazten dutenak. Gurasoetako batek bere semearen irudia modu bidegabe, desegokian, iraingarrian edo apalesgarrian erabiltzen badu, besteak eztabaida sor dezake guraso-ahala baliatzean edo, hala badagokio, salatu ere egin dezake.

Auzitegi honek, Pontevedrako Entzutegi Probintzialak emandako ebazpenarekin ados¹⁰⁰, ulertzen du errealitatea dela, *Facebook*, *Instagram* eta antzeko sare sozialetan argitaratzen denaren pribatutasuna kontrolatzeko zailtasun handiak daudela. Bertan partekatzen den informazioaren inguruan egunero gertatzen diren gehiegikeriak, eta are gehiago adingabeak tartean daudenean. Horrek eragotzi egiten du argitalpenetan irudiak edo informazioa partekatzea, seme-alabak adingabeak direnean, guraso bakoitzak bere aldetik egin ditzakeen egintzekin uztartzea edo lotzea.

Gurasoek, lagunak eta senideak adingabeen irudiak diren kontutan izan gabe, automatikoki eta zuhurtziarik gabe geroz eta gehiago argitaratzeko joeraren errealitate sozial hutsak, adingabearen pribatutasunaren gehiegizko esposizioa eragiten du, etorkizunean gogaituta edo irainduta sentitu ahal izango diren kontuan hartu gabe, hirugarrenek erabiltzeko eta manipulatzeko duten arriskua alde batera utzita, eta kasu askotan, baita hamalau urtetik gorako adingabeen baimenik gabe ere.

Beraz, Entzutegiak ondorioztatzen du adingabearen intimitate, ohore eta irudiaren gaia hain delikatu eta garrantzizkoa denez, bi gurasoen erabakia eta adostasuna beharko dela adingabearen datu pribatuen erabilerarako, guraso-ahalaren etete edota gabezia dagoen kasuetan izan ezik¹⁰¹.

Kasu honi dagokionez, nahiz eta semearen zaintza amak izan, eta nahiz eta gurasoak bikote ez izan, guraso-ahala biek dutenez eta biek egikaritzen dutenez, bi gurasoei dagokie adostasuna eta erabakia ematea.

¹⁰⁰ EPE Pontevedra 2015-06-04 (Roj:SAP PO 1123/2015).

¹⁰¹ EPE Bartzelona 2018-05-15 (Roj: SAP B 4328/2018), (2. OJ).

V. GURASOEK ADINGABEAREN OHOREA, INTIMITATEA, EDOTA IRUDIA SARE SOZIALETAN URRATZEAGATIKO ERREKLAMAZIOA

Araudiaren arabera, gurasoek guraso-ahala adingabearen interes gorenean egikaritu behar dute, baina askotan, fede txarrez egin ez arren, euren seme-alabei buruzko informazioa sarean partekatzerako orduan, haien ohore, intimitate edo irudia kaltetzen edo urratzen dituzte. Zoritxarrez, askotan ere, Bartzelonako Entzutegi Probintzialak adierazten duen moduan¹⁰², gurasoek ez dituzte kontutan hartzen haien seme-alaba adingabeen nahiak eta iritziak euren datu pribatuen erabilerari dagokionez, haien intimitaterako, ohorerako, eta irudirako eskubideak arriskuan jarritz.

Sare sozialen erabilerak geroz eta hedadura handiagoa du gizartean, eta gaur egun adingabearen interesen kontrako jarduera batengatiko gurasoen aurkako kasu gutxi eman dira. Baina, geroz eta garrantzia handiagoa izango duen supostu bat izango da gatazka hau. Sare sozialen erabilera, eta batez ere, gurasoek haien seme-alaben gehiegizko esposizioa egitea geroz eta ugariagoa baita, eta honek gertuko etorkizun batean gatazka urgariak sortuko ditu.

1/1982 Lege Organikoaren arabera, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoan, 2/2006 Fiskaltzaren Instrukzioan¹⁰³ xedatutakoaren arabera, gurasoek sare sozialen bidez adingabearen ohorea, intimitatea edota irudia kaltetu edo urratuko balute, adingabeak hurrengo akzioak izango lituzke:

Gaur egungo araudiaren arabera, Fiskaltzak, ofizioz edo interesatuak eskatuta, seme-alaba adingabearen intimitaterako eskubidea urratu duten gurasoen aurka tarteratu ahal izango ditu artikulu honetan aurreikusitako ekintza edo akzio egokiak; hau da, kautela neurriak, eta, babes neurriak hartuko ditu Ministerio Fiskalak; eta honekin batera, beharrezko kalte-ordainak eskatuko ditu¹⁰⁴.

¹⁰² EPE Bartzelona 2018-05-15 (Roj: SAP B 4328/2018).

¹⁰³ 2/2006 Instrukzioa (2016-03-15): Fiskaltzaren eta, adingabeen intimitatearen, irudiaren, eta ohorearen babesari buruzkoa.

¹⁰⁴ 1/1996 LO (4.2 art.).

2/2006 Fiskaltzaren Instrukzioak¹⁰⁵ adingabeen eskubideen babesa guraso-ahalaren titularren betebeharretik haratago doala adierazten du; hala baieztatzen du ere Konstituzio Auzitegiak¹⁰⁶.

Hain zuzen ere, nahiz eta guraso ahalaren titularrek guraso-ahala izan, ezingo dute adingabearen intimitatean esku-sartze ez-zilegirik burutu, izan ere, guraso-ahala erabili beharko da eskubide hau babesteko. Hala ere, gatazkan dauden interes guztiak aztertu beharko dira; batez ere, esku sartze ez-zilegirako gurasoen baimena edo nahikoa heldua den adingabearen baimena egon den; izan ere ez baita esku sartze ez-zilegirik egongo eskubidearen titularren baimena dagoenean¹⁰⁷. Kontuan hartu beharko da kasu honetan, Datuen Babeserako 3/2018 Lege Organikoak 7 artikuluan arautzen duela, nahiz eta adingabeak bere adostasuna eman, adingabearen datu pribatuen erabilera legezkoa izateko, gurasoek ere adostasuna eman beharko dutela¹⁰⁸.

Arau orokorra da Fiskaltzak esku hartzea adingabe babesgabeen ohorearen, intimitatearen eta norberaren irudiaren aurkako erasoetan, babesgabetasun-egoeran deklaratu gabe, gurasoek behar bezala tratatzen ez dituzten adingabeen kasuan, legezko ordezkariak ez duten adingabeen kasuan edo legezko ordezkariekin interes-gatazkan dauden adingabeen kasuan.

Hain zuzen ere, 2/2006 Fiskaltzaren Instrukzioan adierazten denez, 1/1996ko Lege Organikoak 4.2 artikuluan Fiskalaren esku hartzerako legitimazio zuzena eta autonomia jasotzen du, ofizioz, edo interesatuak eskatuta, adingabeen ohorerako, intimitaterako, eta irudirako eskubideak babesteko. Horrez gain, Fiskalak subsidiariorotasun maila bat ez duela izango azaltzen du Instrukzioak, baizik eta, Fiskalak esku hartu ahalko duela adingabea gurasoek ordezkatzeko dutenean, guraso edo tutoreen kontra, edota adingabearen borondatearen kontra.

1/1982 Lege Organikoak esku-sartze ez-zilegien aurrean baliatu daitezkeen defentsa-ekintza espezifikoak jasotzen ditu, 9. artikuluan. Neurri hauen bitartez lortu nahi den

¹⁰⁵ 2/2006 Instrukzioa (2016-03-15): Fiskaltzaren eta, adingabeen intimitatearen, irudiaren, eta ohorearen babesari buruzkoa. (4. Atala).

¹⁰⁶ KAE 1999-07-15 (ECLI:ES:TC:1999:134): *“ni siquiera la patria potestad que pueda ejercerse sobre el menor atribuye un derecho a quien sea su titular de disposición sobre la intimidad de ese menor; y, en todo caso, el ejercicio de esa patria potestad debiera ser para su protección.”*.

¹⁰⁷ 1/1982 LO (2.2 art.).

¹⁰⁸ 3/2018 LO (7. Art): *“El tratamiento de los datos de los menores de catorce años, fundado en el consentimiento, solo será lícito si consta el del titular de la patria potestad o tutela, con el alcance que determinen los titulares de la patria potestad o tutela”*.

helburua da kaltetuak haren eskubideen gozamen osoa eskuratzea, ahal den bezain laster esku-sartze ez-zilegiari amaiera ematea, eta aurretik zegoen egoerara bueltatzea¹⁰⁹.

Gainera, etorkizunean antzeko esku sartzerik gerta ez dadin, egoki diren neurriak hartu beharko dira, sortutako kalteen ondoriozko kalte-ordaina ordaindu beharko da, eta, esku sartzea eragin duen subjektuak horrekin dirua lortzekotan, kaltetuak eskuratuko luke diru hori¹¹⁰.

Eragindako kalte-galeren ordainari dagokionez, kalte moralera hedatuko da intimitate, ohore eta irudiaren eskubideen kasuan. Kasuaren inguruabarrak eta benetan gertatutako kaltearen larritasuna kontuan hartuta baloratuko da kalte ordaina; hau da, kalteari balio ekonomiko bat emango zaio, gero kaltetuari ordaintzeko. Horretarako, hala badagokio, kaltea eragin duen bitartekoa hartuko da kontuan. Eta gainera, lesioa eragin duenak lesioaren ondorioz lortu duen onura ere baloratuko da. Aurretik esan bezala, onura izatekotan, kaltetuak ere jasoko lukeelako.

Ekintza horiei dagokienez, garrantzitsua da 4 urteko epean iraungitzen direla ez ahaztea, legitimatuak akzio horiek egikaritu ahal izan zituenetik zenbatzen hasita.

¹⁰⁹ 1/1982 LO (9.2 Art): “La tutela judicial comprenderá la adopción de todas las medidas necesarias para poner fin a la intromisión ilegítima de que se trate y restablecer al perjudicado en el pleno disfrute de sus derechos, así como para prevenir o impedir intromisiones ulteriores. Entre dichas medidas podrán incluirse las cautelares encaminadas al cese inmediato de la intromisión ilegítima, así como el reconocimiento del derecho a replicar, la difusión de la sentencia y la condena a indemnizar los perjuicios causados”.

¹¹⁰ 1/1982 LO (9.3 art.): “Tres. La existencia de perjuicio se presumirá siempre que se acredite la intromisión ilegítima. La indemnización se extenderá al daño moral que se valorará atendiendo a las circunstancias del caso y a la gravedad de la lesión efectivamente producida, para lo que se tendrá en cuenta en su caso, la difusión o audiencia del medio a través del que se haya producido. También se valorará el beneficio que haya obtenido el causante de la lesión como consecuencia de la misma”.

VI. ONDORIOAK

Lanean zehar egindako azterketaren ostean, ohore, irudi, eta batez ere intimitate eskubideak, norberaren bizitza pribatua hirugarrenen esku-sartzeen aurrean babesteko eskubideak direla ondorioztatu daiteke. Hau da, norberak bere bizitza pribatuko arlo zehatzak publiko edo pribatu mantendu nahi dituen erabakitzeke edo kontrolatzeko eskubideak dira.

Eskubide hauek, Konstituzioak oinarrizko kontsideratzeagatik aitortzen zaien babes gorenaz gain, babes penala zein zibila dute.

Babes penalak Oinarrizko Eskubide hauek babesten ditu, pertsona batek beste norbaiten intimitatea urratzeko borondatea duenean eta horretarako bideak erabiltzen ditutenean, datu pribatuak ezagutzera iritsi ez arren. Horrez gain, intimitatea, ohorea, edota norberaren irudi eskubideak zuzenean urratzen direnean ere, babes penala izango dute, delitu penala burutzen den kasuetan.

Oinarrizko Eskubide hauen urrapen penala ez dagoen kasuetan, kaltetuak babes zibila izango du. Eskubide hauen babes zibila garrantzia handikoa da, eta lan honen ardatz dugu. Ohore, intimitate eta irudi eskubideen babes zibila, 1/1982 Lege Organikoak arautzen du. Adingabeen kasuan berriz, haien babes judiziala arautzen duen lege propio bat dago, 1/1996 Lege Organikoa.

Hala ere, babes zibilak urrapen efektiboan ipintzen du atentzioa. Hau da, babesa ematen zaio kaltea jada sortu den kasuetan bakarrik, eta hau gertatzen da eskubidearen titularrak ez duenean hirugarrena baimentzen haren intimitatean, ohorean, edota irudian esku-sartzeak egiteko.

Adingabeak esku-sartze ez-zilegien ondorioz jasan ditzakeen kalteei dagokienez, moralak izango dira kasu guztietan. Ezezagunak zein ezagunak diren sare sozialen erabiltzaileek euren bizitza pribatua ezagutzeak, bereziki, euren izaeraren garapenari larri eragin diezaiokeelako.

Behin kaltea sortuta, esku-sartze ez-zilegiari amaiera eman ahal izateko, eta eragindako kalteak ordaintzeko, erantzukizun zibila ezarriko da; eta honekin batera,

sarera igotako informazioa ezabatu beharko da, esku-sartze ez-zilegia eteteko. Gainera, urrapen penala egon den kasuetan, delitugileari zigor bat ezarriko zaio.

Gauzak horrela izanda, adin txikikoak gaur egun ez du haren intimitate, ohore, edota irudiaren erabileran babesteko bide propiorik, ez baitu jarduteko gaitasun osorik, eta gurasoen ordezkartzapean dagoelako, zeinak guraso-ahala egikaritzen duten. Hau da, nahiz eta adingabea eskubide hauen titularra izan, eskubideen erabilera egingo dutenak, eta, esku-sartze ez-zilegietatik babestuko dituztenak, adingabearen gurasoak izango dira.

Babesari dagokionez, gurasoez gain, Ministeritza Fiskalak ere dagozkion egoeretan parte hartuko du, beharrezko babes eta kautela neurriak hartuz. Era berean, guraso-ahala dela eta, gurasoak izango dira adingabearen bizitza pribatuari buruz erabakiak hartuko dituztenak.

Hala eta guztiz ere, esan daiteke gaur egun guraso askok ez dutela haien seme-alaba adingabearen ohorea, intimitatea eta irudia modu zuzen batean defendatzen. Izan ere, oso ohikoa da guraso askok haien seme-alaben argazkiak Interneten zabaltzea, euren izaeraren eta itxura fisikoaren gehiegizko erakusketa eginez.

Hau kontutan hartuta, ondorioztatu daiteke gurasoek haien seme-alaben borondatea berea bihurtzen dutela, adingabearen nahiak eta iritzia kontutan hartu gabe. Horrela, gurasoek adingabea haien bizitzako elementu gisa erabiltzen dute, eta sare sozialen eremuan ez diote behar duen babesak ematen, nahiz eta haien betebeharra den adingabeen garapenerako eta ongizaterako hain garrantzitsua den intimitatea babestea.

Esku-sartze ez-zilegia dagoen edo ez zehaztuko duen irizpide nagusia eskubidearen titularraren baimena da, eta adingabeen kasuan, gurasoek hartzen dute zeregin hori, askotan bere borondatea errespetatu gabe. Horregatik, etorkizunean adingabeak kasu askotan ez dira ados egongo euren gurasoek haien bizitza pribatua erakustearekin, eta hau babesten duten eskubideei emandako erabilerarekin.

Ondorioz, adingabeen ongizatea eta bizitza pribatua babestea gurasoen betebeharra izanda, eta kontuan hartuta guraso askok ez dutela hau lehenesten, legeak nolabait mugatu beharko luke. Gurasoek haien seme alaben bizitza pribatuari buruz sare

sozialetan egiten duten erabilera, adingabeen nortasunaren garapenarentzat eta ongizatearentzat kaltegarria izan daitekeelako.

VII. ITURRI BIBLIOGRAFIKOAK

BEJAR, H. (1990): *El ámbito de lo íntimo*; Alianza Argitaletxea; Madril.

BERCOVITZ, R. (2016): RODRIGUEZ-CANO; *Manual de derecho civil, Derecho privado y Derecho de la persona*; BERCAL, S.A.; 6. ed.

BERDUGO GÓMEZ DE LA TORRE, I. (1987): *Honor y libertad de expresión*; Technos Argitaletxea, Madril.

CARRIÓN OLMOS, S. (2007): “El derecho a la intimidad”; VERDA Y BEAMONTE, J.R. (Zuzendaria): *Veinticinco años de aplicación de la Ley Orgánica 1/1982, de 5 de Mayo, de protección civil del derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen*, Aranzadi; Iruñea.

CAZURRO BARAHONA, V. (zuz.); LORENTE LÓPEZ, C eta FAYOS GARDÓ, A. (koord.), (2017): *Derecho digital. Perspectiva interdisciplinar*; Bosch Editor Argitaletxea.

COLÁS ESCANDÓN, A.M^a (2017): “La defensa del interés del menor en el conflicto entre el derecho a la intimidad de los menores de edad y los derechos y obligaciones derivados de la patria potestad de sus progenitores”; *Revista Doctrinal Aranzadi Civil-Mercantil*, 9/2017. zk; Aranzadi S.A.U Argitaletxea.

Datuen Babesaren Agentzia espainiarra (AEPD) eta Komunikazio Teknologien in situ nazioala (INTENCO) (2009): “*Estudio sobre la privacidad de los datos personales y la seguridad de la información en las redes sociales on line*”.

DE PABLO CONTRERAS, P., MARTÍNEZ DE AGUIRRE ALDAZ, C., PÉREZ ÁLVAREZ, M.A., PARRA LUCÁN M.^a A. (2018): *Curso de derecho civil (I), Volumen II. Derecho de la persona*; Edisofer S.L. Argitaletxea; 6. ed.

DÍAZ ROJO, J.A. (2002): “Privacidad: ¿neologismo o barbarismo?”; *Consejo Superior de Investigaciones Científicas*; Valentzia.

- GARMENDIA LARRAÑAGA, M.; JIMÉNEZ IGLESIAS, E.; CASADO, M.A.; MASCHERONI, G. (2006): “Riesgos y oportunidades en internet y uso de dispositivos móviles entre menores españoles”; *Net children go mobile*; Azken informea.
- GARRIGA DOMINGUEZ, A. (2016): *Nuevos retos para la protección de Datos Personales. En la era del Big Data y de la computación ubícua*; Dykinson S.L Argitaletxea.
- GAVARA DE CARA, J.C. (2015): “Libertades comunicativas y derechos de la personalidad: límites y colisiones”; DE MIGUEL BÁRCENA, J. (zuz.); *El control judicial de los medios de comunicación*; Bosch Editor Argitaletxea.
- GONZÁLEZ PORRAS, A.J. (Egilea); BELDA PÉREZ-PEDRERO, E. (zuz.) (2015): *Privacidad en Internet: Los derechos fundamentales de privacidad e intimidad en Internet y su regulación jurídica. La vigilancia masiva.*; (Doktoretza tesia); Gaztela-Mantxako Unibertsitatea; Toledo.
- LA CRUZ BERDEJO, J.L. (1990): *Elementos de derecho civil, I; Parte general del Derecho Civil, Volumen segundo, Personas*, Bosch Argitaletxea, Bartzelona.
- LUCAS MURILLO DE LA CUEVA, P. (1990): *El derecho a la autodeterminación informativa*; Technos Argitaletxea, Madril.
- MARTÍNEZ DE PISÓN, J. (2016): “El derecho a la intimidad: de la configuración inicial a los últimos desarrollos en la jurisprudencia constitucional”; *Anuario de Filosofía del Derecho*; 32.zk.
- MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA, K. (2007): *La capacidad del menor en el ámbito de la salud*, 15. bol.; 1. zk.
- MUÑOZ CONDE, F. (2015): *Derecho Penal Parte Especial*; Tirant lo blanch Argitaletxea; Valentzia.
- SAGARDOY BENGOCHEA, J.A. (2005): *Los derechos fundamentales y contrato de trabajo*; Civitas Argitaletxea, Madril.

SAMUEL D. WARREN; LOUIS D. BRANDEIS (1890): “The right to privacy”; *Harvard Law Review*; 4. bol, 5. zk.

VILA RAMOS, B. (2018): “La posición del menor en el ordenamiento y el ejercicio de sus derechos fundamentales. Especial referencia a los supuestos conflictivos en el ámbito del Derecho de familia”; *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*; 767/2018 zk.

ZALDÍVAR ROBLES, J. (2016): “La protección penal del derecho a la intimidad, the criminal law protection of the right to privacy”; *Tirant on line*; 19/2016. zk.

VIII. ITURRI JURISPRUDENTZIALAK

Auzitegi Goreneko epaiak:

AGE 2003-06-27 (Roj:STS 621/2003)

AGE 2009-09-08 (Roj:STS 583/2009)

AGE 2011-09-06 (Roj:STS 583/2011)

AGE 2013-02-18 (Roj:STS 443/2013)

AGE 2015-06-30 (Roj:STS 2856/2015)

Konstituzio Auzitegiko epaiak:

KAE 1987-10-30 (ECLI:ES:TC:1987:170)

KAE 1988-12-02 (ECLI:ES:TC:1988:231)

KAE 1993-07-20 (ECLI:ES:TC:1993:254)

KAE 1998-01-13 (ECLI:ES:TC:1998:11)

KAE 1998-05-04 (ECLI:ES:TC:1998:94)

KAE 1999-07-15 (ECLI:ES:TC:1999:134)

KAE 2001-03-26 (ECLI:ES:TC:2001:81)

Konstituzio Auzitegiko autoak:

CAA 1986-07-23 (ECLI:ES:TC:1986:642A)

Entzutegi Probintzietako epaiak:

EPE Pontevedra 2015-06-04 (Roj:SAP PO 1123/2015)

EPE Bartzelona 2018-05-15 (Roj: SAP B 4328/2018)

Italiako *Ruolo Generale Civile* Auzitegiko epaiak:

2017-12-23 (R.G: 39913 /2015)

IX. LEGEDIA

1889ko uztailearen 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila. *Gaceta de Madrid* 206. zk., 1889ko uztailearen 25a.

1948ko abenduaren 10eko, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala.

1950ko azaroaren 4ko, Giza Eskubideen, eta, Oinarrizko Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmena.

1966ko abenduaren 16ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna.

1978ko Espainiako Konstituzioa. *BOE* 311.zk., 1978ko abenduaren 29a.

1982ko maiatzaren 5eko, Ohore, Intimitate, eta Norberaren Irudiaren Babes Zibilari buruzko 1/1982 Lege Organikoa. *BOE* 115. Zk. 1982ko maiatzaren 14a. (12546-12548 orr.).

1989ko azaroaren 20ko, Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmena. *BOE*, 313. Zk, 1990eko abenduaren 31a. (38897-38904 orr.).

1992ko irailaren 21eko, Haurraren Eskubideen Europako Gutuna.

1996ko urtarrilaren 15eko, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoa. *BOE* 15. Zk, 1996ko urtarrilaren 17a.

2006ko martxoaren 15eko 2/2006 instrukzioa, Fiskaltzaren eta, adingabeen intimitatearen, irudiaren, eta ohorearen babesari buruzkoa.

2015eko uztailaren 22ko, Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Babeserako Sistemaren Aldaketarako 8/2015 Lege Organikoa. *BOE*, 175. Zk, 2015eko uztailaren 23a. (61871-61889 orr.).

2016ko apirilaren 27ko, Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2016/679 erregelamendua, pertsona fisikoen datu pertsonalen babeserako, eta datu pertsonalen zirkulazio askeari buruzkoa.

2018ko abenduaren 5eko, Datu Pertsonalen Babeserako, eta Eskubide Digitalen bermeari buruzko 3/2018 Lege Organikoa. *BOE*, 294 zk, 2018ko abenduaren 6a. (119788-119857 orr.).